

# Goienkaria


EGUBAKOITZA • 2004ko urriaren 1a • IV. urtea • 170. zenbakia • DOAN BANATZEKO



**PAUL BILBAO / KONTSEILUA**  
*"Administrazioa euskalduntzeko plan hau ez da modu egokia arazoa konpontzeko" /8-9*



**Goienka2a**  
 Debagoieneko grafitilariak Euskal Herriko I. lehiaketan



MARIA AGIRRE

## Kaminoa konpondu egingo dute Urkulun

Urkulu urtegiaren ingurua antolatzeko asmoz, 166 autorentako aparkalekuak egokituko dituzte, gutxi gorabehera egun autoak uzten diren tokian, baina zehaztuta. Horrez gain, Goroetatik aurrera asfaltatu gabe dagoen bide zatian asfaltoa botako dute, eta seguruaren piboteak jarriko dituzte Goroetatik aurrera autoak joan ez daitezkeen. Proiektuak guztira 661 mila euroko kostua izango du, eta Gipuzkoako Diputazioak emango du kopuru handiena. Aretxabaletako Udalean espero dute 500 mila euro inguru jasoko dituztela Diputaziotik; gainontzekoa Udalak ordaindu beharko du. /7

## ASTEKO GAIA: LEGE ZAHARRA BERRITZEN ARI DIRA Dibortziatzea errazagoa izango da

Denbora, diru eta sufrimendu zama arindu egingo zaie laster banandu nahi duten bikote debagoienar guztiei. Izan ere, datoren urtarrilean indarrean jarri nahi du Madrilak dibortzioaren lege berria, eta hasita dauden prozesuak horren baitan sartuko dira. Lege horren berritasun nagusia da derrigorrezko banan-

tzea desagertu egiten dela, eta zuzenean dibortzia daitezkeela bikoteak. Adituek uste dute bate-tik hiru bat hilabetera bitartean dibortziatu ahal izango dela; eta dirutan, 1.000 bat euro gutxienez aurreratuko dira.

Debagoienean, 125 ezkontza desegin ziren iaz; aurtun, 84 dira dagoeneko. /3-4

## Hilero 10.000 kilo ehunki biltzen dituzte ibarrean, edukiontzi zurietan


Debagoieneko Mankomunitateak joan den irailean hasi zuen ehunki biltzea programa, eta ordutik hona, hilero 10.000 kilo ehunki inguru bildu dituzte. Urtaro aldaketa dela-eta, herritarrok bazter-

tzen dituzten ehunkiak biltzea guneotan uzteko dei berezia egiten du Mankomunitateak. Izan ere, zerbitzu horrek inoiz bildu izan duen kopuru handiena joan den urrian izan zen (22.207 kilo). /5

### OÑATI

#### Debagoien osoko baserritarrak Herri Egunean, bihar

Orain arte, herriko baserri-tarren hartzan zuten parte Herri Egunean; aurtun, ordea, Oñati-koak ez ezik, Debagoien osoko baserritarrak ere egongo dira. Aurreko urteotan baino parte-hartzaile gehiago izango ditu aurtengo azokak. Horixe da bihar, zapatua, egingo duten Herri Egunak duen berritasunetako bat. /7



# Banantzearen pauso

- Dibortzioaren lege berria lantzen ari da Madril
- Trantsizio garaiko lege zaharkitua ordezkatzeko du
- Hasita dauden prozesuei lege berria aplikatuko zaie

LEIRE KORTABARRIA

**E**zkondutako bikotekideen batek lotura hori hautsi nahi badu, aurretzean bide errazagoa izango du. 2005ean jarri nahi du indarrean Espainiako Gobernuak dibortzioaren lege berria, baina gaur egun prozesuan dauden banantze kasuei lege hori aplikatuko zaie dagoeneko. Lege horrek hainbat aldaketa dakartza, Espainiako trantsizio garaiko legeak sortutako arazoak bukatzeko asmoz.

Berritasun nagusia da lehenengo bi prozesuen ordez bakarria ezartzen duela: hau da, lehen bikotea banandu egin behar zen, eta gero, dibortziatu, hala nahi izanez gero. Horrek zekarren zama emozional eta ekonomikoa –“bikote batzuek 12.000 euro inguru gastatzen zituzten”, diosku Mainer Morras abokatuak– eta baita, hainbat kasutan, prozesua denboran asko luzatzea. “Orain arte, banantzeko, gutxienez urte-



ARTXIBOA

Dibortziatzeko nahikoa izango da batek borondate hori azaltzea, eta ez da kausarik alegatu beharrik izango. EAEn, hala ere, praktikan horrela egiten zen dagoeneko.

bete iraun behar zuen ezkontzak; gero dibortziatu nahi izanez gero, beste urtebete itxaron behar zen”, dio Mainer Morras abokatuak. Orain, hilabete gutxi batzuk bakarrik behar izango ditu bikoteak bananduta egoteko.

Bestalde, epaitegietan lana arinduko da. Nekane San Miguel epaile arrasatearrak dioenez, “dibortziara zuzenean pasatu ahal izatea abantaila handia da guztiondako. Prozesua laburtuko da, nahiz eta lehen ere, Eus-

kal Herrian, nahiko prozesu azkarrak ziren”.

#### PENSIOA ETA ZAINZA

Beste aldaketa batzuk daude. Ekonomikoki ondoen geratzen den bikotekideak konpentsazio-

pentsioa eman behar dio besteari; hori ez da aldatzen, baina orain, alde aurretik erabakiko du epaileak denboran zenbat luzatzen den. Adituen esanetan, legegileak saiatu dira legea garai berrietara moldatzen, eta hori aukera izan daiteke hainbat bidegabekeriarekin amaitzeko: “Gaur egun nahasmen handia dago, ez dagoelako irizpide bateraturik”, dio Maria Luisa Garcia abokatu aretxabaletarrak. “Emakume gazte bat dibortziatzen bada, jakin behar du ezkontza ez dela ‘bizi aseguru’, eta bizi-modua aurrera atera behar duela bizi osorako pentsio barik. Bestalde, emakumeak bizi osoan

*Seme-alaben zaintza biek izateko aukera ematen du legeak, baina kasuz kasu aztertu beharko da*

*Banantzearen figura desagertu egiten da, eta zuzenean dibortzia daiteke bikotea*

*Bikotekideen adostasuna eta negoziazioa gero eta garrantzitsuagoa izango da*



## autoan elkarrekin

ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

AGENDA 21

## www.arrasate-mondragon.org

Bidaiarako automobila beste batekin banantzeko interesa duten **personak elkartzeko zerbitzua**

#### Helburuak:

- ▶ Herritarrei eskaintzea beste aukera bat eguneroko joan-etorrietan, **mugikortasun iraunkorra sustatzea.**
- ▶ Ibilgailu pribatuek sortzen duten **kutsadura eta kontsumo energetikoa txikitzea.**
- ▶ Ingurune publikoaren erabilera hobetzea.

**Edozeinek erabili eta edozein lekutara mugitzeko zerbitzua!!!**

Ingurumen Saila ■

# mingarria arinduko da

## Familia motak EAEn

• Ibarrean (Zumarraga, Urretxu eta Legazpi barne) 84 bikote banandu dira aurtengoa; iaiz, 125.

• Ezkondu ere, gero eta gehiago ezkontzen gara: 2002an, EAEn, ezkontzak %2,6 gehitu ziren.

• EAEko familien %50 baino gutxiago da ezkontutako bikotea eta seme-alabak: familia tradizionala ez da nagusi dagoeneko.

• Banandutako bikote batetik datozenek osatutako bikote kopurua asko hazi da: %5, 1996-2001 bitartean.

• Bakarrik bizi direnen kopurua ere asko hazi da. EAEn, 1996an, %15 inguru ziren; 2001ean, aldiz, %20,3.

• Izatezko bikoteak, aipatutako bost urteetan, %27,5 ugartu ziren EAEn.

ak amarekin gelditzen ziren, eta aitak bisita eskubidea zuen. Orain, legeak ematen du aukera seme-alabak guraso bakoitzarekin denbora epe berdinetan bizi ahal izateko.

“Zaintza partekatua epaile baten esku geratzea oso arriskutsua iruditzen zait. Gurasoen arteko komunikazioa eta ondo konpontzea behar dira”, dio M<sup>a</sup> Luisa Garciak.

### BITARTEKARITZA, SARRIAGO

Alderdi horrek oso puntu garrantzitsua azpimarratzen du: hain zuzen, garrantzi handiagoa ematen zaio bikotekideen arteko adostasunari eta akordioak bilatzeari. Epaileak hartutako erabakiak baino errazago betetzen dira horiek.

Horren harira, gero eta gehiago erabiliko dute bikoteek bitartekaritza zerbitzua, Larraitz Ugarte eta Maider Morras abokatuaren esanetan. Izan ere, EAEn laster izango dugu bitartekaritza lege bat. Horren arabera, bikoteek hainbat neurri adostu ahal izango dituzte idatzizko kontratu batean. Epaitegian egin beharreko lana murriztu egingo da.

Banantzeko gero eta erraztasun handiagoak daude, eta aurreikusten da gero eta bikote gehiago banantzea. “Europako beste herrialde batzuen bidetik goaz, non gero eta arruntagoak diren beste familia mota batzuk”, dio Larraitz Ugartek. Itxura denez, Debagoieneko mentalitatea, kontu hauetan, oraindik aurrerakoiegia ez den arren, jendearen bizimodu aukerak pisu handiagoa izango dute gizartearen iritziek baino.

## LARRAITZ UGARTE ETA MAIDER MORRAS / ABOKATUAK

### “Bikotekideak ados egonda, hiru hilabeteetan dibortzia daitezke”

Larraitz Ugarte eta Maider Morras abokatu debagoienek iritzi ona dute lege aurreproiektuaren gainean. “XXI. mendean, zaharkituta zegoen 81eko lege hura”, diote.

### Denboran eta dirutan, asko aurreztuko da, ezta?

Maider Morras: Bai. Lehen, gutxienez bi urte behar izaten ziren, lehenengo banandu eta gero dibortziatu arte. Orain, biak ados badaude, hiru hilabeteetan egin daiteke prozesu osoa. Diru aldetik ere, batez beste, 1.000 bat euro aurreztuko dira, adostutako dibortzioa baldin bada.

### Hautsak harrotu ditu zaintza partekatua.

Larraitz Ugarte: Baina ez da derrigorrez ezarriko, askok uste duten moduan. Gurasoen adostasuna eta beste baldintza batzuk eman behar dira.

M.M.: Abantaila da aukera hori zabaltzea. Gurasoak gaizki konpontzen diren eta zingoa da egin, izan ere, horrelakoetan, umea elkarren aurkako arma bezala erabiltzen dute gurasoek. Baina, kasuaren arabera, ona izan daiteke. Jende asko arduratuta dago horrekin, baina egoera berriak dira eta ohitu beharra dago.



### “Orain arteko egoeran, gutxienez bi urte behar izaten zituen bikoteak banantzeko”

### Zer gertatuko da konpentsazio-pentsioarekin?

L.U.: Emakumea lan munduan sartu da eta legeak horri erantzuten dio, suposatzen delako emakumeak ez duela kalte ekonomikorik jasango elkarbizitza horretatik, eta horregatik jarri dute zalantzan pentsio hori, eta batez ere, behin betikoa izatea. Baina horrek beste alde bat

du: emakumea burujabea da kasu askotan, baina bere lan egoera ez da gizonaren parekoa. Hortaz, emakume asko gera daiteke ezer barik.

### Esango zenukete inoren-dako abantaila dela legea?

M.M.: Oro har, abantaila gehiago ditu banandu nahi duten gizonendako, batez ere zaintza izatea errazten dielako. Edozela ere, dibortzio gehienak emakumeek hasten dituztenez, gero eta emakume gehiagok hartuko dute urratsa.

L.U.: Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeek ere ez dute hori frogatu beharrik izango, zuzenean dibortzioa eskatu ahal izango dute. Hala ere, ez dut uste lege berriak tratu txarrak eta hilketak saihestuko dituenik.

etxean lan egin badu, beste baliabiderik gabe, hori ere konpentsatu egin behar zaio”, dio.

Pentsioaz gain, banandutakoek luzaroan salatu duten beste gai bat da seme-alaben zaintza. Orain arte, kasu gehienetan, ume-

## BIDEGABEKERIAK

### Konpentsazio-pentsioaren harira, asko aprobeztatu egiten dira

Enrique Brunet bergararrak dioenez, “15 urte daramat emazte ohiari pentsioa ematen, eta guztiok dakite lanean diharduela”. Lege berriak egoera horiek saihestuko dituela espero dute askok.

## GUREAN, KASU ASKO

### Jendea gehiago banantzen da hemen, bizi-maila dela-eta

Maria Luisa Garcia abokatuak dioenez, Debagoienean banantze tasa altua dago: “Nire ustez, arrazoia da hemen bizi-maila altua dagoela, eta emakume gehienak lanean daudela; ez dira ondorio ekonomiko beldur”.

## BATEZ BESTEKO ADINA, GORA

### Bizi guztirako bikoteak %10 izango direla aurreikusten da

EAEn, 20 urtetik gora ezkontuta zeramatzen bikoteen %21 banandu dira 81a ezker. Gehien 40-49 adin tartekoak banandu ziren 2002an: 796 kasutik 252. Hamar urtean, bikoteen erdia apurtuko direla uste da.

## ZAINTZA PARTEKATUA

### Ezohiko egoera bat modu onenean aurrera eramateko ideiak

Zaintza partekatua umeendako abantaila gehienekin izan dadila eskatzen dute elkarte batzuek: alegia, umea etxe aldatzen ibili beharrean, eurak etxe batean bizi eta gurasoak txandakatzen joatea.

**DESLAN FORMACIÓN**

**Software librea espezializatutako goi mailako ikastaroa**

2004ko azaroaren 8tik 2005eko martxoaren 22ra

- **Iraupena:** 200 ordu
- **Ordutegia:** astelehenerdik eguenera 18:45etik 21:45era
- **Nori zuzenduta:** informatika eta informazio teknologiekiko zerkusian duten profesionalak eta informatikarekin harremana duten unibertsitate tituludunak.

Kolaboratzailea: **alcanze**

**Informazio zabalagoa:** Florida 17, 1. esk. 7. bulegoa. Vitoria-Gasteiz.  
Tel.: 945 131 542 (09:00-13:00/16:00-19:00) Posta-e: info@deslanformacion.com

**bitart**

Abokatutza eta bitartekaritza

Lege arazoaren konponbide labur eta baketsuak

**Larraitz Ugarte  
Maider Morras**

Nafarroa etorbidea 23  
ARRASATE  
943 71 25 22/23

INGLESA FRANTSESA ALEMANA

**Hizkuntzak**

- ✓ Multimedia dohainik edozein ordutan
- ✓ Irailean matrikula dohainik

Sistema prezentsiala - Talde txikiak - Esperientziadun irakasleak  
Irakaskuntza metodo aurreratuak

Cambridgeko azterketarako gertaketa: Maila guztiak  
Starters-etik PET, Proficiency-ra

AKADEMIA **BASTIDA**

**Ikasleak:** [6-8 urte] [9-12 urte] [13-16 urte]  
**Nagusiak:** [Maila guztiak]  
**Empresak:** [Maila guztiak] [“In Company”]

943 79 35 33 bastida@bastida.es



Barrikadak ipini zituzten herriko zenbait puntutan, eta ertzainen piloten harriak jaurtiz egin zieten aurre zenbait manifestarik.

## Istiluak izan ziren Arrasaten astelehenean, Gudari Egunean

*Domekan Besaiden egin zuten hildakoak gogora ekartzeko ekitaldia*

UBANE MADERA

**Astelehenean, irailaren 27an, Gudari Eguna izan zen. Urtero moduan, egun hori gogora ekartzeko ekitaldiak egin zituzten ibarrean. Tartean, eskualde osoko manifestazioa egin zuten Arrasaten. Bukatu baino lehen istiluak izan ziren.**

Astelehen goizean hasi ziren Gudari Eguna gogora ekartzeko ekitaldiak. Bergarako zein Arrasateko zenbait ikaslek kale batzuk itxi zituzten. Ertzaintzak berehala zabaldu zituen bideak. Era berean, bezperako egunetan pintada ugari agertu dira ibarrean. Bergarako kasuan, udal gobernu taldeak gaitzetsi egin ditu pintadok: "Bergaran eta bergarar guztien ondasunak urratu besterik ez direlako egiten eta herriaren iru-

dia modu honetan degradatzea ezin dugulako onartu".

Astelehen arratsaldean, berriz, manifestazioa zegoen deituta Arrasaten. Ibar osoko 500 herritar baino gehiagok bat egin zuten deialdiarekin. Arrasaten, ohi dutenez, manifestazioaren helburua zen hildakoak omentzea. Eta hori egiteko, herriko zenbait puntutan lore eskaintza egiten dute.

Astelehenean ere hori egiten ahalegindu ziren manifestazioan bat egin zutenek. Baina Ertzaintzaren zenbait patruila atzetik jarraika izan zituzten eta Muxibarko biribilgunean, manifestariak errepidea zapaldu bezain laster, Ertzaintzako kaleko ekintza taldekoek aurre egin zieten. Hala, istiluak hasi ziren. Batzuek pilotakadak egin zuten eta beste batzuek harriak erantzun zieten. Ezezagun batzuek

barrikadak eta guzti ipini zituzten. Edukiontzia, obretako hesiak eta aparkatutako autoak erabili zituzten horretarako. Arratsaldeko azken ordua arte segitu zuten istiluek.

### SEI ZAURITU INGURU

Gertatutakoaren lekukoek kontatu digutenez, Ertzaintzaren kargen ondorioz, sei lagun inguru zaurituta gertatu ziren. Haietako bi neskak Eskualde Ospitaleko larrialdi zerbitzuetara joan behar izan zuten. Pilota batek buruan kolpatu zuen zaurituetako bat. Horren ondorioz, besteak beste, burukomin handiak izan zituen hurrengo egunetan. Bestea, berriz, ukondo inguruan kolpatu zuen polizia. Horren ondorioz, besoa lotuta dauka eta pilulak hartzen dabil, minari aurre egiteko.

## Elkarriren manifestaziora joateko autobusa gertu

*Bihar egingo da Elkarriren manifestazioa Donostian*

MARIA AGIRRE

**Arrasatetik 15:30ean aterako da manifestaziora joateko autobusa, eta ondoren Antzuolara abiatuko da hango jendea jasotzeko. Hainbat lagun joango da, benetako elkarrizketaren alde Elkarrik Donostian egingo duen manifestaziora.**

Manifestazioa bihar, zapatua, egingo da Donostiako Haizeen Orrazitik aterata, 17:30ean. Abendu baino lehen benetako elkarrizketa izatearen alde leloa izango du Elkarrik deitutako manifestazioak. Dagoeneko hainbat lagun ezagunek adierazi diote atxikimendua manifestazioari: Abraham Olano, Almudena Cid, Andoni Egaña, Maite Aristegi, Juanito Oartzabal, Garbiñe Biurrun eta Gorka Landaburuk, besteak beste. Elkarriko kideek manifestazioaren aniztasuna nabarmendu nahi izan dute, bildutako pertsona kopurua bezain garrantzitsua, bertaratuko direnen aniztasuna izango dela esanez. Era horretan, manifestaziora joateko

dei egin diote euskal gizarteari, eta abendurako elkarrizketa abiatzeak garrantzi handia duela azpimarratu dute Elkarrikoek.

### DEBAGOIENEN TAILERRAK

Elkarrik Debagoiengan dituen tailerrek elkarlanean egiten dute lan manifestazioaren bat antolatzen denean, eta oraingo honetan ere bai. Herri bakoitzetik autobus bat antolatzea gehiegizkoa dela eta, eskualde guztirako bakarria antolatuko dute. Arrasatetik eta Antzuolatik pasatuko denez autobusa, interesatuek batera edo bestera joan behar dute. Arrasaten, Gari bai geltokitik aterako da, 15:30ean, eta ondoren Antzuolara gerturatuko den bila joango da.

*Elkarriko kideek manifestazioaren aniztasuna nabarmendu nahi izan dute*

## Eguzkieneko etxeetarako izenematea oraindik zabalik

*Urriaren 14an bukatuko da izena emateko epea*

MARIA AGIRRE

**Urriaren 14an bukatuko da Aretxabaletako Eguzkienean egingo dituzten 185 etxebizitzetarako izena emateko epea. Udalak finkatutako preziodunak izango dira etxe horiek.**

Hasiera batean, herenegun, egunetan, bukatu behar zen izena emateko epea, baina urriaren 14ra arte luzatzea erabaki dute. Beraz, etxebizitzak sustatuko dituen enpresak, Bruesak, Aralar kaleko 8. zenbakian ireki duen bulego hurbildu behar dute interesatuek; martitzen edo egunetan, goizez nahiz arratsaldean.

Eguzkienean guztira 428 etxebizitza eraikiko badituzte ere, 185 salduko dituzte Aretxabaletako

Udalak finkatutako prezioan, eta hain justu horietan izena emateko epea dago oraindik irekita. Dagoeneko 371 lagunek egin du izenematea. Gutxi gorabehera 53 mila eurotan salduko dira etxe horiek.

### BALDINTZAK

Udalak eta Bruesak hainbat baldintza jarri dituzte etxe horiek saltzeko: eskatzaileak Aretxabaletan erroldatuta behar du egon; 2003ko errenta aitortpenaren gutxienez 9.000 euro baina gehienez 48.000 euroko diru sarrerak edukitzea, eta azkenik, beste etxebizitzarik ez izatea. Hori frogatzen duten agiriak aurkeztu behar dira izena emateko orduan. Baldintzak betetzen dituztenekin zozketa egingo da, baina Udalak izango du horren ardura.

## Graduatu osteko ikastaroak 2004/2005

### DESLAN FORMACION

#### Gestio integratuan masterra, kalitateko auditoriak, ingurumena eta prebentzioa (2. edizioa)

- 2004ko urritik 2005eko uztailean.  
- 500 ordu bertan.  
- Astelehenean ostegunera.

Laneko arriskuen prebentzioaren maila goreneko titulua lortzen da.

#### Kalitate gestioan eta enpresa bikaintasunean masterra

- 2004ko urritik 2005eko uztailean.  
- 100 ordu bertan.  
- Astelehenean.

#### Ingurumen gestioan masterra

- 2004ko urritik 2005eko uztailean.  
- 100 ordu bertan.  
- Asteartean.

#### Lan arriskuen prebentzioan goi mailako ikastaroa

- 2004ko urritik 2005eko uztailean.  
- 650 ordu. (100 ordu bertan).  
- Asteazkenetan.

#### Giza baliabideetan goi mailako ikastaroa

- 2004ko urritik 2005eko otsailera.  
- 45 ordu bertan.  
- Ostegunetan.

**Nori zuzenduta:** lizentziadunak, diplomadunak, ingeniariak edo ikasketen azken urtean daudenak.

**Ordutegia:** 18:45etik 21:45era.

**Deskontua:** %10 La Previsora Mutualitateko lotuta dauden enpresetako profesionalak.

#### Lan poltsa

#### Enpresetan praktikak

#### Enpresetara bisitaldiak

Antolatzailea

DESLAN FORMACION

Kolaboratzailea

La Previsora  
Mutua La Previsora

Koordinatzailea

ASERTEK GESTIÓN  
Asesores Técnicos en Gestión de Empresas

bentas  
Grupo

#### Informazio zabalagoa:

Florida 17, 1. esk. 7. bulegoa. Gasteiz.  
Tel.: 945 131 542 - 09:00-13:00/16:00-19:00  
Posta-e: info@deslanformacion.com

Txinatar jatetxea  
**DRAGON ORIENTAL**



**Etxera eramaten dizugu janaria**

• Ostiral eta zapatu gauetan izan ezik  
• Gutxieneko eskaria 12 euro  
• 1,8 euro etxera eramateagatik

• 30 euro baino gehiagoko eskarrietan, garagardo txinatarraren opari  
• 40 euro baino gehiagoko eskarrietan, botila bi txinatar likore edo garagardo txinatar bi opari

• 20 minutuan etxean  
• Arrasaten bakarrik

943 79 85 33

Araba etorbidea 3 ARRASATE

# Baztertutako arropa eta ehunkiak bilguneetan uzteko eskatzen dute

*Mankomunitateak ehunki-bilketa edukiontzia erabiltzeko dei egiten du*

LEIRE KORTABARRIA

**Urtaro aldaketagatik, jendeak arropa asko baztertzen du sasoi honetan. Mankomunitateak dei berezia egiten du arropa, zapata eta antzekoak, bota barik, bilketa edukiontzietan uzteko. Izan ere, berriro erabil edo birzikla daitezke.**

Debagoieneko Mankomunitateak joan den irailean hasi zuen ehunki bilketa programa, eta ordutik hona, hilero, 10.000 kilo ehunki inguru bildu izan dituzte. Urtaro aldaketa dela-eta, herritarrok baztertzen dituzten ehunkiak bilketa guneotan uzteko dei berezia egiten du Mankomunitateak. Izan ere, zerbitzu horrek inoiz bildu izan duen kopuru handiena joan den urrian izan zen (22.207 kilo), eta gutxien, otsailean (8.299 kilo) eta abuztuan (8.320). Biztanleko, Gatzagan bildu izan dira kilo gehien (0,92); gero, Elgetan (0,3).

Mankomunitateko ardura-dun Marta Garmendiak gogorazten du "arropak eta oinetakoak ez ezik, ehunez egindako edo zer gauza" bota daitezkeela: poltsak, gerrikoak, izarak, mantak, trapuak...

## KONTUAN HARTZEKOAK

Ohar gutxi batzuk kontuan hartu behar dira ehunkiok botatzeko orduan. Ondo zein zabor dauzen ehunkiek berdin balio dute, baina ez da utzi behar olio edo koipez bustitakorik. Bestalde, Mankomunitateak gogorarazten du: "Oso garrantzitsua da plastikozko poltsa itxietan uztea, bestela busti egiten dira-eta, bai biltzerako orduan, baita garraioan ere. Era berean, plastikozko poltsa horiek txikiak izan behar dute, bestela edukiontzien sarre-ira itxi egiten da eta beteta dagoenaren itxura ematen du, nahiz eta oraindik lekua egon".

Debagoieneko herri guztietan daude ehunkiak batzeko edukiontzia zuriak. Honako lekuetan daude, hain zuzen ere: Antzuolan, Aiherra kalean, kultura



Edukiontzia zuriotan jasotako ehunkiak beharrak dituztenei eman edo birziklatu egiten dira.

*Urtaro aldaketa dela eta, arropa asko baztertzen da, eta horiek bilduko ditu Mankomunitateak*

etxearen atzealdean; Aretxabaletan, Gernika plazan; Arrasaten, Muxibar eta Maiatzaren Bata plazetan, Musakolako aparkalekuan, Biteri kalean eta Obenerrekako frontoi parean; Bergaran, Zubiaurre kalean; Matxiategi poligonoan, hilerriko aparkaleku ondoan; eta azokako sarrera ondoan. Elgetan, Berraondokuan dago edukiontzia; Eskoriatzan, Gastañadui kalean, estanko ondoan; Gatzagan, Dorletarako bidean, beste edukiontzien ondoan; eta Oñatin azkenik, Olakua eta Errementari plazetan.

*Ibarrean, hileko 10.000 kilo ehunki jaso izan dira batez beste joan den iraila ezker*

## BERRERABILI ETA BIRZIKLATU

Jasotako ehunkiak Emaus eta Oldberri enpresetara bidaltzen ditu Mankomunitateak, eta horiek bi irtenbide ematen dute: batetik berrerabili, hau da, gure inguruan bizi diren baliabiderik gabeko taldeen artean

banatu, edo garapen bidean dauzen herrietara eta bidezko merkataritzako dendetara bidali. Bigarrenik, birziklatu: berriro erabil ez daitezkeen ehunkiak birziklapen enpresetara bidaltzen dituzte, betegarriak, material isolatzaileak eta beste produktu batzuk egiteko.

Debagoieneko Mankomunitatearen esanetan, ingurumenarendako onurak asko dira. Hain zuzen, energia eta baliabide naturalak aurrezten dira; ehunki industriak sortzen duen kutsadura murrizten da; baliabiderik gabeko gizataldeek laguntza jasotzen dute; eta zabor-tegiak gutxiago betetzen dira.

## LABUR

### MUK Informatika Masterra eskainiko du EHU

Mondragon Unibertsitateak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Donostiako Informatika Fakultateak elkarlanean hitzarmena sinatu dute. Hitzarmen honen ondorioz, MUko ikasleek Sistema Telematikoen gaineko masterra egiteko aukera izango dute EHU. Masterra datoren egubakoitzean, hilaren 8an, hasiko da eta ahalbidetuko du unibertsitateko ikasleek eta informatikako profesionalek euren jardunerako formazioa osatzea. Masterra EHUko Informatika fakultatean, Donostian, emango bada ere, MUko Goi Eskola Politeknikoa arduratuko da antolaketaz.

### Hainbat berritasun ibarreko AEK Euskaltegietan

Debagoieneko AEK Euskaltegiek ikasturte berri honetarako berrikuntzak izango dituzte. Hain justu ere, 1. eta 2. mailako azterketetarako prestaketa ikastaroak ere egingo dituzte. Hortaz, aurreko ikasturteetan 5. urratsetik 10. urratsera arte ibilitakoek, aukera izango dute aurtengo ikastaroan zehar maila hori gainditzen dutela ziurtatzeko eta euskaltegietan bertan izango diren azterketa ofizialak egiteko. Bestalde, matrikula epea aste bete luzatu dute eta astelehenera arte, urriak 1, dago Arrasateko eta Bergarako euskaltegietan izena emateko aukera. Horretaz gain, Arrasateko euskaltegia zaharberritu dute eta atzo, eguna, egin zuten inaugurazio ekitaldia.

# Servimasa

## Sukaldeko altzariendako akzesorio eta osagarriak

Tel.: 943 76 19 95  
Faxa: 943 76 07 49  
**BERGARA**

autonomoentzako eta mikroenpresetarako **mintegiak**

### Nola egin online administrazio publikoekiko izapideak.

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan.

Lehenengo mintegi honetan, **Internet eta Teknologia Berriei esker, administrazio publiko desberdinekin izapideak egiterakoan denbora galtzea nola saihestu** dezakezun azalduko dizugu. Orain zure **etxe, bulego** edo **negoziotik egin ditzakezu, erosotasunez.**

Debagoiena  
urriak 5  
ARRASATE  
Mondragon Goi Eskola  
Politeknikoa  
Orduetgia: **18:00-20:00**

Informatzeko eta izena emateko:  
**902 252 595**  
[www.miramondigital.com](http://www.miramondigital.com)  
[ursos@miramondigital.com](mailto:ursos@miramondigital.com)

Antolatzailea:



Miramón  
Enpresa Digitala

Sustatzaileak:



## Gutunak

## Marmitakoa!

San Migeletako herri bazkariaren Singuruan zenbait kontu argitu nahi ditugu lerro hauetan eta, bide batez, buruan ditugun zenbait galdera ere luzatu nahi genituzke.

Bazkari arrakastatsua da San Migel eguneko. Ehunka herritar elkartu ohi gara bertan; lagun taldeak, familiak, artisauak, talogileak... Azken zazpi urtetan bazkaria antolatzeke arduratzen Askatasuna erakundeak hartu du bere gain. Udalak antolaketarako 600 euro jartzen ditu (badirudi aurtengoa azkena izango dela) eta aipatutako erakundeak bere lana eskainiaz 600 euro horiek preso eta senideei helarazten dizkie. Bazkariaren kostua ez da berdina muntaia, zerbitzuketara eta garbiketara lanak norberak bere gain hartuz gero. Bazkariaren eta edarien kostuak txartelekin batutakoarekin parra egiten du. Horrela, Askatasunak bere lana jarrita, 600 euro biltzen ditu euskal herritar horiei bideratzeko.

Azken urteetako historia izan da hori. Baina aurrean, eta zehazki astelehen honetan jakin genuenez, bazkariaren antolaketan gorabeherak sortu dira, azpijokoak egon dira, beste era batera esanda. Dei baten bidez jakin genuen Udalak antolaketarako jarritako dirulaguntza bertan behera uztea erabaki zuela gobernu batzordean. Jai egitarautik ere kentzeko eskatu omen zuten. Xabier Sarasua kultura zinegotziak eman zigun erabakiaren berri, ustez gobernu batzordearen erabakia. Ustez diogu, gobernu batzorde horretako behin-behineko aktan ez dagoelako horrelakorik jasota. Dena den, prozedimendu burokratikoak jarraituta, datorren ostegunean onartuko dute zinegotziek akta horretan jasotakoa aldatu behar den edo ez.

Bazkariaren antolaketa martxan zegoen garai horretarako eta nahiko aurreratu ere bai. Baldintzak aldatzen ari ziren, ordea. Asteleheneko egoera: kaosa. Gobernu batzordeak (ustez) baldintzak aldatu zituen eta Askatasuna orduan ari zen jakinaren gainean jartzen. Asteartean Xabier Sarasuarekin hitz egin genuen. Berak gobernu batzordearen erabakia zela adierazi zuen hasieratik. Udalak Askatasunari ez ziola dirulaguntzarik emango eta Udalak berak ez zuela aurtengo herri bazkaria antolatu jakinarazi zigun.

Askatasunak balorazioa egin zuen une horretan. Udaletik jasotako jarrera guztiz salagarria iruditzen zitzaigun. Horrelako erabakiak azken orduan jasotzeak Askatasuna egoera penagarrian utzi zuen. Erabaki hori hartzeko orduan egoera hori sortuko zela jakinaren gainean zeuden, baina horrela nahi izan zuten antza. Egun horretako bazkaria garrantzitsua da herritarrontzat bestalde, eta ez genuen nahi bertan behera gertatzea. Baina, aldi berean, azken orduko azpijokoak zirela-eta haserre geunden.

Azken erabakia hartu aurretik, ordea, bestelako berriak jaso genituen. Antolaketarako dirulaguntza egongo dela aurrean, nahiz eta egitaraua berriz aldatzeko aukerarik ez egon.

Puntu honetatik aurrera hainbat galdera sortzen zaizkigu. Noren erabakia izan zen azken orduan bazkari herrikoia antolatzeke laguntza bertan behera gertatzea, Xabier Sarasuarena, gobernu batzordearena? Azken orduan sortutako egoera nork eragin nahi izan zuen? Zergatik?

Aurtengoa bai izan dela marmitakoa!

ARETXABALETAKO ASKATASUNA  
Aretxabaleta

## Gauzak argitu nahian

San Migeletan zapatuan Iturrigorri frontoian izandako bazkariaren antolaketaren inguruan zabaldu diren bertsio faltsuak gezurtatu gura ditu Aretxabaletako Udalak. Udalak hartu dituen erabakiak honako hauek izan dira:

2004-09-16: Tokiko Gobernu Juntan Kultura zinegotziak jai egitarauaren berri eman zuen. Puntuz puntu aztertzean herri bazkaria ustez Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformak antolatzen zuela azaldu zen Gobernu Juntan. Presoen senideentzako eta hauen eskubideen aldarrikapenerako laguntzak beste bide batzuetatik bideratuta daudela jakinik, herri bazkarirako dirulaguntza ez ematea erabaki zuen Gobernu Juntak, Udalak bideratutako beste laguntzak mantenduz (aulkiak eta mahaiak, muntaia eta azokako parte-hartzaileen bazkari-xtartelaren kostua).

2004-09-17: Kaleko hormetan pegatutako herri bazkarirako karteletan ez zen talde antolatzailearik aipatzen baina karteletako leloa ez zetzorren bat Jai Egitarauan herri bazkarirako Gobernu Juntan adostutako leloarekin.

2004-09-20: Karteletan azaldutako leloak, batetik, eta txartelak taberna jakin batean soilik eskuragarri izateak, bestetik, bazkariari herri izaera galarazten ziotela-eta, Jai Egitarautik ateratzea erabaki zen.

2004-09-21: Azkeneko urteetan talde berberak antolatu dituela San Migeletako herri bazkariak jakinda eta Udalarren eta pertsona talde honen arteko deskoordinazioa ikusita, hain egun gutxitan gai hau zuzentzeko denborarik ez zegoela-eta, dirulaguntza ematea erabaki zuen Udalak.

Edozein izan dela erabakia, eta nahiz eta gehienak premiazkoak izan diren, gutxienez Kultur zinegotzia eta alkatea ados jarrita hartu dira beti eta erabaki guztiak Gobernu Batzordeak berretsi ditu, gainera.

ARETXABALETAKO UDALA  
Aretxabaleta

## Tristeia da

Tristeia da, geurea moduko herri batean, pertsona baten jazarpen politiko ziztrina egitea. Tristeagoa oraindik, gezur hutsen bidez egiten bada. Tristeia, batez ere, egindako kaltea hor geldituko delako, gauzak argitu eta gero ere. Tristeia da, preso eta senitartekoentzako dirulaguntzak lehengoan mantentzeko indar egin dugunok eta amnistia herri honen bake bidean ezinbesteko pausotzat daukagunok, presoen aldeko herri bazkariaren paskin mingarriak jasotzea. Tristeia da horren aurrean hainbat jende isilik gertatzea. Tristeia oso hamasei urteko gaztetxoak "gurekin ez daudenak etsai dira" dinamika beldurgarrian sartzea babesten ari direlako. Tristeagoa da, gainera, ezker abertzaleko jendearen aurka etsaitzen direlako. Triste gaude bai, baina sekula baino beharrezkoago sentitzen gara, behar dugun ezker abertzale gizakoi eta eraginkorra berreraikitzeke. Eta berreraikitze horretarako gure eskuak zabalik jarraituko du.

ARETXABALETAKO ARALAR  
Aretxabaleta

## Errespetua

Irailaren 20an *flipatu* egin nuen *Asteleheneko Goienkaria*-ko artikulua baten nire izen-abizenak beltzez ikustean.

Artikuluaren ingurumenari zor diogun errespetuari buruz aritu zen idazlea, zer dagoen ondo eta zer gaizki esanez. Bere burua errespetuaren erredutzat jarri, eta beste batekin batera jarrera desegokiaren adibide bihurtu ninduen.

Nik, berriz, ez dut bizikleta edo autoa erabiltzearen gaineko leziorik eman nahi: nik errespetuari buruzko lezio laburra eman nahi nioke.

Herritarren eskura dagoen ibarreko aldizkarian idazteko ohitura duen horrek jakin beharko luke artikuluetan ez dela komeni dagokion baimenik gabe inoren izen-abizenik ematea, are gutxiago izen horiek modu txarrean erabiltzeko asmoa badu. Baina, hala ere, izen-abizen horiek erabiltzea erabakiz gero, ondo ezagutu beharko lituzke bai pertsona hori baita bere ohiturak ere. Eta abizenaren grafia ere bai, ezta? Nire kasuan ez du ez lehen puntua ez bigarrena betetzen: ez nau eza gutzen eta are gutxiago, ez du ideiarik ere bizikleta edo autoa erabiltzeko nire ohituraz. Beraz, ez dut uste, baimenik eskatu gabe nire edo inoren izen-abizenak modu horretan erabiltzeko inongo esku-biderik duenik. Ondo dago ingurumena errespetatzea baina baita pertsonok ere.

Ikusten nola artikulua bat izen-abizenik eman gabe idatz daitekeen?

AIMAR ELORTZA  
Arrasate

## Udako UPV-EHU

UPV-EHUK (Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea) antolatutako "Multilinguismo y multiculturalismo en la escuela" ikastaroan parte hartu nuen Donostian.

Ikastaroko hizlariak Torontoko (Kanada) Unibertsitatetik, Eusko Jaurlaritzatik, Lleidako Unibertsitatetik eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomotik etorri ziren, eta gaiaren inguruan dauden teoria eta esperientzien berri eman ziguten. Gaztelaniaz izan zen ikastaroa, informazio orrian zioen bezala, eta gaztelaniazko itzulpena zegoen ingelesezko azalpenetarako.

Eta aipatutako ikastaroan norbaitek hitza euskaraz hartu zuenean, antolatzaileek erantzun zioten ez zegoela euskarazko itzulpenik, eta gaztelaniaz egiteko. Antolatzaileek ez zuten aurreikusirik inork euskaraz egingo zutenik.

Antolatutako ikastaroa eta besteen berri emateko egindako liburuan dioenez "UPV/EHUK Donostian antolatu ohi dituen ikastaroen zeregina honako hau da: unibertsitate-hedapena, maila guztietako irakasleen prestakuntzari arreta berezia ezarri ezagupen profesionalak eguneratzea, unibertsitate arteko harremanak eragitea eta etengabe aldatzen ari den Gizarteari buruzko hausnarketa egitea, Euskal Herriaren esparruan nahiz mundu osokoan".

Liburuaren sarreran dakartzan mezuetan, ikastaroen zuzendariarena, Donostiako alkatearena, eta UPV-EHUKo batzorde antolatzaileko lehendakariarenak barne, ikusten dugu: "...mota guztietako beharrei eta interesei erantzutea helburu duela..."; "...Estatuko kultura eskaintzarik onenetakoa dela..."; "...gizarte zuzenago eta orekatuagoaren bidean..."; "...pluraltasunaren elkarbizitza sendotuko duela...".

Baita ere ikusten dugu UPV-EHUK udan eskaintutako ikastaroak, kongresuak, nazioarteko topaguneak, eskolak, jarduerak profesionalak eta tailerrak honela banatzen direla hizkuntzaren ikuspegitik: euskaraz, 4 (%4,65); gaztelaniaz, 76 (%88,37); gaztelaniaz eta frantsesez, 1 (%1,16); gaztelaniaz eta ingelesez, 2 (%2,33); gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz, 1 (%1,16); ingelesez, 2 (%2,33). Guztira, 86 (%100).

Gaztelania eta euskara ikasteko zikloak ere eskaini ditu. Eskaintutako ikastaroak eta besteak iraupen ezberdinetakoak izanik ere, ikusten dugu aktibitateetan %4,65 dela euskaraz.

Europara eta mundura ireki, eta Europar eta munduan gure aportazioa egitea saiatzen ari garenean, non landu behar dugu gurea, gure nortasunaren elementu garrantzitsua den hizkuntza Euskal Herriko Unibertsitatetik kanpo badago? Antolatzaileek aipatzen dituzten asmoak eta ematen den eskaintza kontuan hartuta, bakoitzak ikusiko du aldea. Udako Euskal Herriko Unibertsitatea ote da hau?

RUFINA OLASAGASTI  
Arrasate

**Goienkaria**  
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA  
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA  
Edorta Mendietza,  
Miguel Angel Elkoroberebar,  
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gaintzarain,  
Ane Berezibar, Arantazu Arana

SAILETAKO ARDURADUNAK  
Iñaki Iturbe (Diseinua)  
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,  
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,  
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA  
Iban Arantxabal

TESTUEN ZUZENKETA  
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA  
Marta Leturia

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak  
LEHENDAKARIA  
Estepan Plazaola  
ZUZENDARI NAGUSIA  
Iñazio Arregi

## BERGARA

### Udal gobernuko eta BAKo kideen arteko eztabaida izan zen udalbatzan

Udal gobernuko eta Bergara Aurrerako (BA) kideen arteko eztabaida eta akusazioak izan ziren asteleheneko udalbatzan. LOREGen 182.2 artikulua aplikatuz, BAK dagokion hautetsien ordezkari izatea aldarrikatu zuen. BAREN arabera, formula horrek borondate politikoaren baitan uzten ditu irtenbideak. Alkatearen iritziz, gai hori eztabaidatzeko forurik egokiena Eusko Legebiltzarra da. Aralarrek, berriz, auzia aztertu eta bideratuko duen batzorde berezi bat sortzea proposatu zuen. /E.M.

## ARRASATE

### Eskultura moduan egindako zortzi soineko ikusgai daude Monterronen

Arrasateko Udalak 2003an eman zuen Emakumeendako Bekaren emaitza Monterronen dago ikusgai egunotan. Zortzi jantzi-eskultura dira. Hau da, egileak, Melina Lopez artista gazteak, eskultura moduan egin dituen zortzi soineko dira. Eta eskultura edo soineko horiek egiteko, XX. mendeko zortzi emakume artistaren lanetan oinarritu da Melina Lopez: Ana Mendieta, Rebecca Horn, Louise Bourgeois, Cindy Sherman, Claude Cahun, Georgia O'Keefe eta Frida Kahlo. Emaitza ikusgarria lortu du. /U.M.

## ELGETA

### Uriburun etxeak egiteko lanak azaroan hasteko asmoa dute

Uriburun etxeak egiteko asmoa aspaldikoa da eta proiektua aurrera doa. Hirualdebat SL promotorea arduratuko da etxeak egiteaz, eta azaroan lurrak mugitzeko obrekin hasiko dira. Hainbat motatako etxeak egingo dituzte: hamar txalet, bi bizitzako 20 etxe eta elkarri atxikitako 18. Etxebizitza bloke bat ere eraikiko dute. Oraindik salgai jarri ez badituzte ere, esan digutenez asko dira Elgetatik etxeen gaineko informazio eske joan direnak, eta batzuek erreserba ere egin dute. /I.A.



AINZANE IRIZAR

## OÑATI

### Debagoien osoko baserritarrek egongo dira Herri Egunean

Orain arte, herriko baserritarrek hartzen zuten parte Herri Egunean; aurten, ordea, Oñatikoak ez ezik, Debagoien osoko baserritarrek egongo dira. Aurreko urteotan baino parte-hartzaile gehiago izango ditu aurtengo azokak. Horixe da bihar, zapatua, egingo duten Herri Egunak duen berritasunetako bat. Unibertsitatearen aurrealdean euren produktuak erakutsiko dituzte baserritarrek. Epaimahaikideek postuak bisitatu eta produktuak epaituko dituzte, eta eguerdian sariak banatuko dituzte. Herri Eguna Oñatiko Baserritarren Elkar-teak antolatzen du eta aurten berritasun asko ditu, elkar-tearen 25. urteurrena ospatzeko. Bufaloak ere egongo dira aurten, eta baita urteroko sagardotegiak, taloak, ardiak, bildotsak eta artisauak, besteak beste. /O.E.

## ARETXABALETA

### Urkulun aparkalekuak egin eta falta den zatia asfaltatu egingo dute

Urkulu urtegiaren ingurua antolatzekeko asmoz, 166 autorendako aparkalekuak egokituko dituzte, gutxi gorabehera egun autoak uzten diren tokian, baina zehaztuta. Horrez gain, Koruetatik aurrera asfaltatu gabe dagoen bide zatian asfaltoa botako dute, eta seguruen piboteak jarriko dituzte Koruetatik aurrera autoak joan ez daitezkeen. Hala ere, bertan bizi direnek izango dute autoz sartzeko aukera. Era berean, eserlekuak eta kirola egiteko lagungarriak izan daitezkeen kartelak jarriko dituzte. Autoendako eta oinezkoendako arauak jarri nahi direnez, seinaleak jarriko dituzte.

## DIPUTAZIOAREN DIRULAGUNTZA

Proiektuak guztira 661 mila euroko kostua izango du, eta Gipuzkoako Diputazioak emango du kopuru handiena. Udalean espero dute 500 mila euro inguru jasoko dituztela Diputaziotik, eta gainon-

tzekoa Udalak ordaindu beharko du.

Astelehenean ezohiko osoko bilkura egin zen udalletean, Urkulu antolatzekeko proiektuari argi berdea emateko. Alderdi guztiak azaldu ziren proiektuaren alde, baina Aralarreko onarpena astebete atzeratu, eta herritarrei argibideak ematea eskatu zuten. Arritxu Oliden alkateak, berriz, proiektua lehenbailehen onartzea garrantzitsua dela esan zuen. Kontua da Foru Aldundiaren laguntza jaso nahi bada lanak derrigorrez aurten egin behar direla. /MARIA AGIRRE

## Zertzelada

Proiektuak guztira 661 mila euroko kostua izango du, eta Gipuzkoako Diputazioak emango du kopuru handiena, 500 mila euro inguru.

## ANTZUOLA

### Kalte ugari sortu dituzte ezezagun batzuek eskola inguruan eta frontoian

Aurreko asteburuan, kalte ugari sortu zituzten eskolako jolastokian eta frontoian. Jolastokian, sarre-rako metalezko atea hondatu eta saskibaloiko saskia bere tokitik mugitu zuten, horrek dakarren arriskuarekin. Izan ere, saskia lurrera erortzeko moduan laga zuten. Bestalde, frontoian, larrialdie-

tako argi guztiak apurtu zituzten eta hainbat erro-tulu, aulki eta paperontziri su eman zieten.

Horren guztiorren aurrean, ohar bat kaleratu du Udalak, ekintzok direla-eta bere ardura adierazteko; bide batez, "halako jarrerak ekiditeko lan bateratua egiteko" dei egin die Udalak herritar guztiei. /A.I.



VALEN MOÑUX

Saskibaloiko saskia bere tokitik atera zuten, indarrez.

## ESKORIATZA

### San Migelak ospatuko dituzte asteburuan Apotzaga elizatean

Apotzaga elizatean San Migel jaiak ospatuko dituzte asteburuan. Bihar, zapatua, meza esango dute 12:30ean. Gauean, berriz, bertso afaria egingo dute Auzo Etxe elkartean. Maialen Lujanbio eta Sebastian Lizaso arduratuko dira giroa berotzeaz.

Domekan, 10:00etan kanpai jotzea egingo dute eta gainera, etxafuegoak botako dituzte. 10:30ean umeentzako marrazki lehiaketa hasiko da. Guztiei emango dizkiete opariak. 12:30ean meza esan, eta jaiak amaitzeko, luntxa izango da eliza kanpoan. /Z.V.M.

## ARAMAIO

### Untzilla auzoko jaiak izango dira gaur hasi eta domekara arte

Makina bat ekitaldi antolatuko dituzte untzillarrek auzoko jaiak ospatzeko. Hasteko, gaur, barikua, auzotarrek afaria egingo dute Mañukorta eta Gorrotxategi bertsoariak giro-tuta. Eta bihar, besteak beste, 17:30ean umeendako jolasak izango dira eta gauean erromeria eta 23:00etan bolo txapelketa.

Bukatzeko, domeka eguerdian Santa Agedako eta Garagartzako abesbatzak abestutako meza izango da; haren ostean, Aramaioko dantza-taldearen saioa, eta gero vermouthe dantza, guztiendako. /U.M.

## GATZAGA

### Hogeita bost kilometro ditu domekako II. Mendi Bizikleta Ibilaldia

Domekan Gatzagako II. Mendi Bizikleta Ibilaldia jokatuko da. Goizeko bederatzietan elkartuko dira parte-hartzaile guztiak herriko plazan; orduan eman beharko da izena. Segidan, 25 kilometro egiten hasiko dira. Besteak beste, Dorletako Santutegia, Olaun eta Landatik pasatu ondoren, Gatzagan bertan amaituko da ibilaldia.

Txikienezko beste ibilbide bat prestatu dute, 11:00etan Gure Ametsan elkartuko dira. Amaieran, guztientzako opariak egongo dira. /Z.V.M.

*Paul Bilbao*

BEHATOKIKO ZUZENDARIA

**“Administrazioa euskalduntzeko plan hau ez da arazoa konpontzeko modu egokia”**

Hizkuntza eskubideak aztertzeke, neurtzeke eta bermatzeko jaio zen Behatokia duela hiru urte. Paul Bilbao hasiera-hasieratik ari da Behatokian lanean, eta joan den astean, zuzendari izendatu dute. Postu berrian, lanean jarraitu nahi du. Azaroan, hizkuntza eskubideak eta hezkuntza aztertzeke nazioarteko sinposioa egingo dute Donostian.

OIHANA ELORZA

**Ardura berria duzu lan zaharrean.**

Behatokia sortu zenetik kudeatzaile ibili naiz lanaren zati batean, eta bestean teknikari gisa ibili naiz; Behatokiaren barrualdea ondo ezagutzeko aukera izan dut hiru urte hauetan, bai.

**Eta nolako Euskal Herria ikusi duzu denbora horretan?**

Egia esan, hizkuntza eskubideen egoera nola egon den ikusteaz ez da pozgarria. Behatokiak urtero ateratzen du txostena, gizarteari, euskalgintzari eta administrazioari egiten dion ekarpena, hain zuzen ere. Bertan, hizkuntza eskubideak Euskal Herri osoan urratzen direla esan behar izan dugu urtero; baita administrazio guztiek urratzen dituztela ere.

Azken baten, behar hori zegoelako eta behar horri erantzuteko sortu zuen Kontseiluak Behatokia; erakunde independentea hizkuntza eskubideen inguruko diagnostia egiteko eta diagnosi hori dagokionari erakusteko. Gero, erakunde bakoitzak ikusi behar du zein mekanismo jartzen duen martxan hori berriro gertatu ez dadin edo egin duena konpontzeko.

**Administrazioa, adibidez, oraintxe ari dira euskalduntzeko planetan.**

Oraindik ez dugu ondo aztertu hirugarren plangintza aldia, hainbat erronka berriri eutsi



ARGAZKI PRESS

behar izan diogulako. Hala ere, gainera irakurrita, ez dugu uste arazoa konpontzeko mekanismo egokia izango denik. Dagoeneko 20 urte baino gehiago pasatu dira EAEn hainbat hizkuntza eskubide onartu zirela herritarrendako, eta jasotzen ditugun nolakotasunak kontuan hartuta, bestelako ausardia bat egon beharko luke Administrazioaren aldetik, oinarritzko giza hizkuntza eskubideak bermatzeko. Beste arlo batzuetan politika ausartagoak eramaten dira aurrera, baina hizkuntza beti gelditzen da bazterrean. Gainera, guri heltzen

zaizkigun kasuekin ateratzen ditugu datuak.

**Euskararen Telefonora deitzen duten herritarren kezak ari zara?**

Bai. Euskararen Telefonoak (902 19 43 32) bi helburu ditu: bate-tik, hizkuntza eskubideak urratu dizkioten herritarrak bere kexa azaltzeko deitzen du telefono honetara; edo baita zorionak emateko ere.

Bigarren helburua da kexa horien tramitazioa. Hau da, espedienteak zabalitzen dugu eta bideratu egiten dugu dagokion erakunde, administrazio edo enpre-

sara. Horrela, badakigu erakunde edo enpresa pribatu horrek jakin duela hizkuntza eskubidea urratu egin duela. Kexa bat tramitatzeak, ordea, bere protokolo zehatza jarraitu behar du eta prozesuak bere denbora behar du. Urtero 700-800 kexa tramitatzea izugarritzko lana da.

**Arlo pribatuan ala publikoan urratzen dira gehiago hizkuntza eskubideak?**

Egia esatearren, gehienbat eremu publikoari buruzko urratzeak jasotzen ditugu. Herritarrek hizkuntza eskubideekiko duten kontzientzia eremu pri-

batua urruti ikusten dute oraindik eta ez dira konturatzen eremu pribatuan zerbitzua euskaraz jasotzen ez badute, eskubideak urratzen ari zaiela. Hala ere, baditugu eremu pribatuan urratzen diren kexak ere, adibidez, iragarkiak gaztelania hutsean jartzen dituztelako.

**Debagoienan, esaterako, justizia administratiboan eta osasun sailean gertatzen diren hizkuntza urratzeak salatzen ditu, behin eta berriz, EHEK.**

Behatokian ere, bai justizia eta bai osasun eremuari atal berezia eskaini diegu azken urteotan.



## EUSKARAREN TELEFONOA

**“Bi helburu ditu: hizkuntza eskubideen urratzeak jasotzea eta kexa horiek dagokion erakunde edo enpresari bideratzea; kexa tramitatzea, alegia”**

## EREMU PRIBATUA ETA PUBLIKOA

**“Gehienbat eremu publikoari buruzko urratzeak jasotzen ditugu. Herritarrek hizkuntza eskubideekiko duten kontzientzia urruti ikusten dute oraindik”**

Nazioarteko tratatu guztietan agertzen da pertsona batek eskubidea duela, bai atxilotzen dutenean bai epaitzen dutenean, bere hizkuntzan tratatua izateko. Eta hori ez da gertatzen, gaur, Euskal Herri osoan: epaile elebidunak badaude, baina ez fiskal elebidunik. Justiziarena oso kasu larritzat jotzen dugu.

Osasun arloari buruz ere kexa asko jaso ditugu eta azterketa bereziak egin ditugu. Osasun zerbitzua da zerbitzu bat eta beharrezkoa da bakoitzaren hizkuntza bermatzea, eta hori ez da gertatzen. 2001ean mila lanpostu baino gehiago atera zituzten deialdi publikora, eta baten ere ez zen euskara beharrezkotzat hartzen. Horrek, zoritxarrez, esan nahi du hizkuntza eskubideen urratzeak sistematikoki jarraituko duela hurrengo urteetan ere.

**Tramitazioen erantzunik jasotzen duzue?**

Normalean kexa zehatzak bidaltzen zaie, eguna, ordua eta toki zehatza jarritz, adibidez. Osakidetzan, ordea, erantzun eredu bat bidali digute azkenaldian. Bertan, euskararen erabilera arautzeko dekretua argitaratu behar dutela esaten ziguten.

**Jaso duzue Zinemaldiaren inguruko kexarik?**

Bai, bat baino gehiago, gainera, eta kezkatzeko beste arrazoi bat da guretako. Orain, azken bi urteotako ikerketarekin aztertu dugu aurtengoa, eta hortik aterako ditugu ondorioak.

**Euskaldunok hizkuntza eskubideak ezagutzen ez ditugula entzun dizut.**

Herritarrok, euskaldun gisa, ohikotzat hartu dugu oinarriko eskubideak urratzea, eta oraindik legerari lotuta ulertzen ditugu. Horrek zalantza eta segurtasun falta dakar. Gure hizkuntza-komunitatea bospa-

sei zatitan dago. Hizkuntza eskubidea unibertsala da, eta eskubideak hizkuntza-komunitateko biztanle guztiei dagokie. Baina pertzepzio hori ez da orokorra Euskal Herriko biztanleen artean, tamalez.

**Hizkuntza eskubide berberak ditugu guztiok?**

Hizkuntza-komunitate bateko kideak garen heinean, bai. Talde linguistikoek ere euren eskubideak dituzte eta, jakina, norbanako eskubideak ere badi-

tugu. Guk, hala ere, azpimarratzen dugu Euskal Herriko berezko hizkuntza-komunitatea euskal hizkuntza-komunitatea dela, eta arrazoi horregatik, hizkuntza eskubide batzuk dituela. Hori da gure aldarria.

## “Europarantz ditugun hizkuntzen bi herenak ezkutatu egiten dituzte erakundeak”

**Emakumeek bakarrik hitz egiten zuten hizkuntza bat galdu egin da joan den astean, Txinan. Gurea ere arriskuan dago?**

Egia esan, Europatik datorrigun panorama ez da batere baikorra. Gaur egun, 20 hizkuntza ofizial daude Europan, eta 60 hizkuntza-komunitate. Horrek esan nahi du bi herenak ezkutatu egin dituztela.

Europarantz askotan hitz egiten da hizkuntzen aniztasunaz, baina kontuan hartu behar da zein aniztasunez ari diren. Hau da, zer gertatuko da hizkuntza gutxiagotuekin? Europa eraikitzeke zirraborroetan aniztasuna errespetatu behar dela jasotzen dute, baina gure kezka da ea eskubide hori hizkuntza gutxiagotuei ere esleitzen zaien.

Gure iritziz, ezinbestekoa da Europako hizkuntza guztiak ofizialak izatea Europan, hizkuntza guztiak berdinak dira-eta. Beste eztatanda bat izango litzateke Europako instituzioetan zein lan hizkuntza erabili beharko duten. Hizkuntza guztiak behar lukete ofizialak izan; eta horrela, Europako hiritar eskubidea izan geure hizkuntzan hitz egiteko Europako administrazio guztietan.



ARGAZKI PRESS

**Eskubidea, beraz, zirraborroan bakarrik gelditzen da.**

Lehen hizkuntza zein hizkuntza izango den da estatuaren arteko lehia, eta eztatanda horretan gurea bezalako hizkuntza-komunitateek toki txikia dute; populazioaren aldetik ez gara asko, eta, beraz, nahiko baztertuta sentitzen gara. Europako hizkuntza-komunitate guztiok aldarrikatu behar dugu ofizialtasuna, horrek emango digulako aukera gure hizkuntza eskubideak bermatzeko. Ofizialtasunik gabe, oso zaila da hori lortzea. Lan handia egin behar dugu esparru horretan, ofizialtasunaren alde.

# DANBAKA))))))

DEBAGOIENEN I. MUSIKA LEHIAKETA

**Kontzertuetara joan nahi baduzu,**

**gazte**kutxa

**bidez gauzak erraztuko zaizkizu.**

## Urriaren 8tik aurrera...

Gaztekutxako txartela daukatenean hiru euro balio duen sarrera euro bakarrean eskuratu ahal izango dute. Horretarako, sartu Gaztekutxa.net helbidean edo Goiena.net-en, eta eskuratu sarrerak merke.

Gaztekutxa txartelik ez daukazula? Ba zure herriko Kutxako edozein bulegotara gerturatu, eskatu zure Gaztekutxa txartela (ez duzu ezer ordaindu beharko) eta gainera hurrengo kontzerturako bi sarrera oparituko dizkizu Kutxak.

Prezioak	Espaloian	Gaztekutxa bitartez
• Kontzertu bakoitzeko sarrera	3 euro	Euro 1
• 6 kontzertuetarako abonua	15 euro	6 euro

### SARI NAGUSIA

Disko bat grabatzea

### IZENA EMATEKO EPEA

2004ko urriaren 7a

### IKUSLEAREN SARIA

Bateria bat + 1.000 euro musika instrumentuak erosteko

### BERRI GEHIAGO

[www.goiena.net/danbaka](http://www.goiena.net/danbaka)

**gazte**kutxa

GOIENKARIA

ARRASATE IRRATIA

Goiena.net

espalioia

Goitb

MEMESA

Goienkaria

GANESHA TATTOO

Elgetako Udala

jakinak

SUKALDEAK • BAINU GELAK KERAMIKAK

Carrión música

Podiuma

# Nagore Iñurrategi | IGERIKETA EGOKITUKO MONITOREA |

XABIER URZELAI

**B**ederatzi urte egingo ditu aurten ibarreko igeriketa egokituko zerbitzuak, eta beste horrenbeste daramatza Nagorek horretan lanean. Orain koordinatzaile lanetan dabil; martitzenean hasiko dituzte eskolak.

**Debagoieneko Eskualdeko Kirol Sailak igeriketa egokituko zerbitzua antolatu du berriro. Igaritzen da zortzi urteko esperientzia?**

Bai, zerbitzu modura zortzi urte lan horretan ibiltzeak aurrerapenak ekarri ditu, eta nik neuk epe horretan mordoa ikasi dut. Argi dago orain dela zortzi urte ez genituela orain ditugun aurrerapenak, eta jendeak ere gehiago ezagutzen gaitu orain.

**Zerbitzua ezagutzen ez dutenentzako, azaliezaguzu zer den igeriketa egokitua.**

Igeriketa egokituko ikastaroen helburua da buru, gorputz edo zentzumen urritasuna dutenei egokitutako ur-ekintzak eskaintzea. Hala, ekintza horiei esker dituzten zailtasunak gainditu edo konpentsatu ahal dituzte.

**Guztiak ez dituzte, baina, urritasun berdina izango.**

Ez, horregatik ematen dugu zerbitzu pertsonalizatua, pertsona bakoitzak arazo ezberdinak dituelako, eta egin beharreko lana ez delako berdina. Batzuk igeri egiten ikastera datoz, beste batzuek gura dute



Nagore Iñurrategi psikopedagogia dabil ikasten Eskoriatzako fakultatean.

**“Igeriketa egokituan dabilzan lagun guztiek ez dituzte urritasun berdinak, eta lana pertsonalizatua da”**

**“Bakoitzak bere helburua izaten du: igeri egiten ikasi, motrizitatea hobetzeko uretan ariketak egin, aske sentitu...”**

urari beldurra kentzea, batzuentzako onuragarria da uretan ariketak egitea, eta arazo handiak dituztenak eta gurpildun aulkian dabilzanak aske sentitzen dira uretan. Bistan da nork bere helburua duela, eta helburu hori lortzeko egin

beharreko lana ez da kasu guztietan berdina.

**Zenbat lagun ibiliko zarete lanean?**

Hamabi lagun inguru ibiliko gara igeriketa egokituko zerbitzua eskaintzen. Ni orain koordinatzaile lanetan nabil, baina

zerbitzu horrek boluntarioek egiten duten lanarekin funtzionatzen du. Normalean, psikopedagogia edo ezinduekin lan egiteko lanbide heziketa ikasten dabilzanak animatzen dira gurekin lan egitera, baina beste inor animatzen bada ateak irekita daude, lan egiteko gogoia baino ez da behar.

**Aurtengo ikastaroan zenbat lagunek eman dute izena?**

Gutxi gorabehera hogeita hamar lagunetik gora izango dira ikastaroan, baina oraindik badago izena emateko aukera. Edozein herritako kiroldegian emango dizuzte informazio guztia.

Kirolabur

**DEBAGOIENA/FUTBOLA**

**A**loña Mendik eta Bergarak etxean jokatuko dute oraingo asteburuan. Bergararrak zapatuan, 16:30ean, ahalginduko dira denboraldiko lehenengo garaipena eskuratzen, Urolaren kontra. Oñatiko taldeak, berriz, domekan jokatuko du, 16:30ean, Touring-en kontra.

Aretxabaletako taldeak Tolosara joan beharko du zapatuan; 16:30ean hasiko dute norgehiagoka. Eta Mondrak ere bihar jokatuko du, 17:30ean, Real Uniongo bigarren taldearen kontra.

**OÑATI/ARRIKRUTZEKOAK ZARAGOZARA**

**L**iga Txapelketa irabazten hasi eta gero, Arrikruz Oñati Eskubaloi Taldeak bigarren jardunaldia jokatuko du oraingo asteburuan. Oñatiarrak Zaragozara joango dira domeka goizean, 12:30ean jokatuko dute-eta Iberia Corazonistas taldearen kontra. Taldea animatzera joan gura duenak jakin dezala autobusa egongo dela, goizeko seieta Correosen.

**ARRASATE/BABESLE BERRIEN AURKEZPENA**

**M**ugarri Alkesa Arrasate Saskibaloi Taldeak domeka eguerdian jokatuko du Liga Txapelketako bigarren jardunaldia, Caja Rural Ardoy talde nafarraren kontra, Iturripen. Horrekin batera, taldeak martitzenean 20:00etan egingo du babesle berrien aurkezpena Ziar-Ola elkartearen.

**GATZAGA/MENDIKO BIZIKLETA ZEHARKALDIA**

**D**omekan, urriak 3, mendiko bizikleta zeharkaldia egingo dute, Dorletako Batzordeak eta Gatzagako Udalak antolatuta. Goizeko 10:00etan hasiko da ibilaldia. Aurretik, 09:00etan, parte-hartzaileek izena eman beharko dute frontoian. Mendi zeharkaldia maila ertainekoa izango da, eta 25 kilometro izango ditu. Aldi berean, gazteendako ere antolatu dute beste ibilaldi bat, motzagoa. 11:00ak aldera hasiko da gaztetxoek mendi irteera, eta gurasoekin batera egin beharko dute bidea.





Berritze lanak direla eta **urriaren 4tik aurrera ARETXABALETAN aurkituko gaituzu**  
Bainuetxe 10, 943 771378

Astelehenetik ostiralera, 09:30-20:00.  
Larunbatetan, 08:00-14:00





Ondo pasa Marixutan!



**RENAULT SERVICIOS**

**carrocería rápida**

ARTE ABSTRAKTUA MUSEOETAN DAGO ONDO, EZ ZURE AUTOAN.  
CARROCEÍA RÁPIDA: KONPONKETAK 24 ORDUEN BARRUAN.

Urradurek, kolpe txikiak, kristal, argi nahiz atzerako ispilu apurtuek ez dute ongi ematen zure autoaren karrozerian. Horregatik, guk 24 orduen barruan konpontzen ditugu, alde zuzeneko hitzordu barik eta unean bertan egindako aurrekontuarekin, idatziz eta konpromiso barik. Eta hala ez bada, ordezko ibilgailu bat doan.

**Renault Servicios. Gelditu ez zaitezten mugitzen gara.**

Buruan baduzu, hemen duzu. [www.renault.es](http://www.renault.es)

XV Juegos Mediterráneos Almería 2005

Pieza de Origen **Renault**  
Espíritu Renault

RENAULT recomienda eif

**RENAULT  
AUTOBERRI**

San Andrés auzoa, 8 • Tel. 943 71 24 72 • ARRASATE



Moda eta kolorea preziorik onenean

UNITED COLORS OF BENETTON.

Maalako Errabala, 13 • ARRASATE • 943 79 50 78

**UNITED COLORS  
OF BENETTON.**

# BIDAIA HANDIAK



ZURE OPORRENGATIK EGIN  
DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN  
DUGU

Irteerak  
**BILBOTIK**

INFORMATU  
ZAITEZ EZKON  
BIDAIA EGITEKO  
DAUKAGUN  
ESKAINZA  
ESKLUSIBOENZ



## PUERTO RICO

5 egun / 4 gau

H. MIRAMAR TURISTA H.	HG	<b>982</b>
HYATT DORADO BEACH LUXUZKOA H.	OB	<b>1.173</b>

## INDIAKO ESENTZIA

8 egun / 6 gau

BISITATZEKO: DELHI, JAIPUR (AMBER), FATEHPUR SIKRI Y AGRA.

A MAIL HOTELAK	HG	<b>987</b>
----------------	----	------------

## AEBak & KANADA

EKIALDEKO HIRUKIA 9 egun / 7 gau

BISITATZEKO: NEW YORK, TORONTO, NIAGARAKO UR-JAUZIAK, WASHINGTON DC Y PHILADELPIA.

1 MAIL / TUR HOTELAK	OB	<b>1.100</b>
----------------------	----	--------------

**NUEVA YORK** 8 egun / 7 gau

PENNSYLVANIA TURISTA H.	OB	<b>1.126</b>
-------------------------	----	--------------

**NUEVA YORK ETA ORLANDO** 6 egun / 4 gau

TURISTA HOTELAK	OB	<b>1.233</b>
-----------------	----	--------------

**NUEVA YORK ETA MIAMI** 6 egun / 4 gau

TUR / TUR SUP HOTELAK	HG/OB	<b>1.251</b>
-----------------------	-------	--------------

## COSTA RICA

**COSTA RICAKO KONTRASTEAK** 10 egun / 8 gau

BI PERTSONARENTZAKO ALOKATUTAKO AUTOA BARNE DAGO.  
2 GAU SAN JOSEN, 2 GAU TORTUGUERON, 2 GAU  
ARENAL SUMEDIAN ETA 2 GAU MONTEVERDEN.

HOTELAK PROGRAMAREN ARABERA	HG/MO	<b>1.312</b>
-----------------------------	-------	--------------

**COSTA RICA KARTARA** 10 egun / 8 gau

2 GAU SAN JOSEN, 2 GAU TORTUGUERON, 2 GAU ARENAL  
SUMEDIAN ETA 2 GAU MANUEL ANTONIO HONDARTZAN.

**** / *** HOTELAK	HG/MO	<b>1.454</b>
--------------------	-------	--------------

## MALDIVAK

9 egun / 6 gau

LHOHIFUSHI 1° H.	HG	<b>1.359</b>
------------------	----	--------------

PARADISE ISLAND SEMI LUXUZKOA H.	HG	<b>1.535</b>
----------------------------------	----	--------------

## BANGKOK

**BANGKOK ETA CHIANG MAI** 11 egun / 8 gau

4 GAU BANGKOKEN ETA 4 GAU CHIANG MAIN.

HOTELAK PROGRAMAREN ARABERA	HG	<b>1.368</b>
-----------------------------	----	--------------

**IPARRALDEKO TRIBUAK** 13 egun

BISITATZEKO: BANGKOK, CHIANG MAI, PAI, MAE HONG SON  
ETA EMAKUMEEN TRIBUA.

HOTELAK PROGRAMAREN ARABERA	HG	<b>1.639</b>
-----------------------------	----	--------------

## SEYCHELLES

8 egun / 6 gau

BERJAYA MAHE BEACH 1° H.	HG	<b>1.378</b>
LE MERIDIEN BARBARONS 1° SUP H.	HG	<b>2.071</b>

## GUATEMALA ZIRKUITUAK

9 egun / 7 gau

BISITATZEKO: GUATEMALA, LA ANTIGUA, IXIMCHE, LAGO ATITLAN,  
SANTIAGO, QUETZALTENANGO, HUEHUETENANGO Y CHICHICASTENANGO.

*** / **** HOTELAK	HG	<b>1.402</b>
--------------------	----	--------------

## MEXIKO - YUCATAN

9 egun / 7 gau

BISITATZEKO: MEXIKO HIRIA, MERIDA, UXMAL, KABAHA,  
CHICHEN ITZA, CANCUN ETA MAIA ERRIBERA.

TUR SUP HOTELAK	OB/TGB	<b>1.481</b>
-----------------	--------	--------------

## MAURIZIO UHARTEA

8 egun / 6 gau

LE MAURICIA 1° H.	ME	<b>1.544</b>
-------------------	----	--------------

LE CANONNIER 1° SUP H.	ME	<b>1.554</b>
------------------------	----	--------------

## KENYARA IHESI

9 egun / 7 gau

BISITATZEKO: NAIROBI, ABERDARES PN,  
NAKURU LAKUA/ELEMENTAITA ETA MASAI MARA.

HOTELAK PROGRAMAREN ARABERA	MO/HG	<b>1.557</b>
-----------------------------	-------	--------------

## PERU TRADIZIONALA

10 egun / 8 gau

BISITATZEKO: LIMA, AREQUIPA, COLGA ARROILA, CUZCO,  
INKEN BAILARA SAKRATUA ETA MACCHU PICCHU.

TUR / 1° HOTELAK	HG	<b>1.825</b>
------------------	----	--------------


## PATAGONIA ETA IGUAZUKO UR-JAUZIAK

14 egun / 11 gau

2 GAU IGUAZUN (UR JAUZIAK IKUSI), 3 GAU BUENOS AIRESEN  
(HIRIA IKUSI), 2 GAU USHUAIAN (SUAREN LURRALDEA PN IKUSI),  
4 GAU CALAFATEN (PERITO GLAZIARA IKUSI).

HOTELAK PROGRAMAREN ARABERA	HG	<b>2.182</b>
-----------------------------	----	--------------

Irteerak Bilbotik, Patagoniara izan ezik (hauek Madrildik edo Bartzelonatik). Prezioak pertsonako logela bikoitzean eta aurretik aipatutako erregimenean, urriko irteera konkretuentzat bakarrik. Informazio gehiago gure bulegoetan. Karbunantearen igoera, tasak, bisa eta gestio datuak ez daude barne. Janari-erregimena: OB: Oatatu bakarrik; HG: Hotela eta gosaria; ME: Mantenu erdia; MO: Mantenu osoa y GB: Gutzia barne. Prezio zuzenak tipografiako akatsik egon ezean. **ESERLEKU MUGATUAK.**



# Goienka2a

Egubakoitza / 2004ko urriaren 1a

Kultura  
eta  
aisialdia



Urriaren  
1etik 8ra



## IBARREKO GRAFITIAK, EUSKAL HERRIKO ONENETAKOAK

**Euskal Herriko Grafiti Lehiaketako finalean, bihar, zapatua, arrasatear batzuek parte hartuko dute**

**D**ebagoieneko grafitilariak Euskal Herriko onenen artean daude. Hala aitortzen du Euskal Herriko I. Grafiti Lehiaketako finalera iritsi izanak. Arrasateetik bidalitako lan bat 28 parte-hartzailetik hamar onenen artean sailkatu da. Izan ere, grafitien zirriborroa bidali behar zuten. Bi arrasatearrek eta bergarar batek osatutako taldeak aurkeztu du, eta bihar, zapatua, Mendarora joango dira, beste bederatz finalistekin batera. *Esan*, *Ukan* eta *Brok* ezizenak erabiltzen dituzte debagoiendarrok. “Lau sari banatuko dituzte, eta gutxienez bat irabazteko itxaropenarekin goaz”.

Hiru debagoiendarrek komentatu digute zela-ko grafitia egin duten. Gaia euskara zen, eta horren gainean, “aurpegiak margotu ditugu, jendeak euskararekiko duen jarrera itxia irudikatzen”. Lehenengo aldiz izan dute aukera lehiaketa baten parte hartzeko, eta sailkapenarekin pozik daude. /15 LEIRE KORTABARRIA

### URRIAREN 2AN, MENDARON

10:00-17:00: Euskal Herriko I. Grafiti Lehiaketako finala.

- Estatuko grafitilari ezagunek erakusketa egingo dute. Okuda, SLK, Isra eta Dibo artistek parte hartuko dute.
- Jendearendako tailerrak zabalduko dituzte: grafitiak, scratch eta DJ tailerra, musika ordenagailu bidez egiteko tailerra, perkusio tailerra, break dance tailerra eta skate tailerra.

17:00: Sari banaketa.

17:30: Erakustaldiak: DZren musika, scratch, skate, perkusio eta break dance erakustaldiak izango dira.

18:00: M.A.K. taldearen kontzertua. Iparraldeko talde horrek rap doinuak joko ditu.

18:30: Aritz Sound System eta DZren musikarekin, Intxaurbreak dantza taldearen ikuskizuna.

19:00: Selektah Sound System-en kontzertua.

20:00: Kadun Karama afrikar doinu eta dantzak.

kalitateko haragia eska ezazu bere izenez



**Soilik Harategi hauetan**

**Baimenduak:** Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak.  
**Artisauak:** Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.



- ANTZUOLA**  
GABILONDO ARREGI HARATEGIA  
KALEBARREN, 14
- ARAMAIO**  
BIXENTE L. AZPILIKUETA HARATEGIA  
BIXENTI GOIKOETXEA PLAZA, 8
- ARRASATE-MONDRAGON**  
LANDALUZE HARATEGIA  
ITURRIOZ, 7
- JOSE MARI SALEGI HARATEGIA  
OLARTE KALEA, 20
- AZPILIKUETA HARATEGIA  
DOCTOR BAÑEZ, 10
- AZPILIKUETA HARATEGIA  
ERGUIN, 12
- KORTABERRI HARATEGIA  
ANTXO ABARKA, 1
- BERGARA**  
ANDRES MUJIKA HARATEGIA  
DOMINGO IRALA, 5
- BIXAIN HARATEGIA  
AZOKA PLAZA PTO. 5-6
- ALDAI HARATEGIA  
ESPOLON, 12
- ESKORIATZA**  
ZUBIA HARATEGIA  
SANTA ANA, 11
- OÑATI**  
ANTXON HARATEGIA  
SAN LORENTZO, 5
- TARSICIO HARATEGIA  
PORTU KALEA, 2
- GARAY HARATEGIA  
MAIATZAREN LEHENA PLAZA, 2
- SUPER BM OÑATI-HARATEGIA  
OLAKUA AUZOA, 8



AISSIALDIA/ DEBAGOIENDARRAK EUSKAL HERRIKO I. GRAFITI LEHIAKETAN

# Ibarrean, puntako grafitigileak

TOPAGUNEAK DEITUTAKO EUSKAL HERRIKO I. GRAFITI LEHIAKETAKO FINALA JOKATUKO DA BIHAR, IBARREKO LEHIAKIDEAK BARNE

L. KORTABARRIA / X. URZELAI

**A**rrasateko grafitizale talde bat Euskal Herriko puntakoen artean dago, izan ere, Topaguneak deitutako Euskal Herriko I. Grafiti Lehiaketako finalerako sailkatu da. Bihar jokatu da hori, Mendaron. Beste bederatzi lehiakiderek batera, grafiti *errezitaldi* gozagarria egingo dute.

Topagunea Euskara Elkarten Federazioak antolatuta du Euskal Herriko I. Grafiti Lehiaketa. Horretarako zirriborroak aurkeztu behar ziren lehenengo, eta epaimahaiak hamar aukeratu zituen. Euskal Herri osoko 28 lan aurkeztu ziren, tartean Debagoieneko bi; horietatik bat, Arrasatekoa, finalera pasatu da. Bihar, urriak 2, Mendaron, esprai poteak hartu eta indarrak neurtuko dituzte beste bederatzi grafitizalerekin. Horretarako, Mendaroko pilotalekuko aurrealdea margotzen hasiko dira 10:00etan, eta 17:00etan jakingo da zein izan den onena, epaimahaiaren iritziz. Zein, edo zeintzuk; izan ere, lau sari banatuko dituzte, hots: teknika eta kolore onenari; gaia -euskara- ondoen islatu duenari; eta grafiti original eta freskoenari. Bakoitzak 1.200 euro poltsikoratuko ditu.

Lehiaketa ez ezik, grafitigintzak mugitzen duen kulturaren jaialdia izango da biharkoa. Izan ere, Estatuko grafitigile onenatariko batzuek erakustaldia egingo dute; hainbat musika emanaldi izango dira, eta publikoak musika, grafiti eta ordenagailu tailerrak izango ditu aukeran.

## GERO ETA ONARTUAGO

Biharko lehiaketa Topagunearen egitasmo zabalago baten zatia da. Izan ere, *asteburuetan.com* izeneko gazte programa antolatu zuen federazioak, 14-30 urte bitarteko gazteen kultura beharrik asetzeko, eta horren barne, hiru ekintza. Horietako bat zen Gazte Sortzaile Sariak. Horren helburua da gazteen sormena sustatzea, urtero gai baten inguruan. Aurtengo ardatza grafitia da. Topagunearen esanetan, "gazte kultura zirkuituetan arrakasta handia dute grafiti tailerrek. Esanguratsua da, gainera, adierazpide hau garatzen duten gazteak Euskal Herriko herri gehientsuenetan daudela".

Debagoienez ere, grafitiak gero eta normaltasun handiagoz ikusten dira; gero eta jende gehiagok onartzen ditu dekorazio edo arte mota bat bezala.



XABIER URZELAI

Ibarrean, Arrasaten dago zaletasun handiena. Horko talde batek biharko lehiaketako finala jokatu du.

## ORAIN, BAITA ENKARGUZ ERE

Ibarreko herri gehienetan agertzen dira grafitiak, baina Arrasate da, duda barik, Debagoieneko grafitizaleen hiriburua. Badago han, urte batzuetatik hona, herriko hormak margotzen aritzen den talde bat. Ezize-

nak dituzte guztiek, eta horiekin sinatzen dituzte lanok, beste edozein margolarik mihisean egiten duen bezalaxe. Euren esanetan, jendeak euren jarduna errespetatzen du, eta Udalak ere ez ditu euren grafitiak ezabatu, eta isunik ere ez diete aspaldian ipini.

Ez hori bakarrik; gero eta sarriago, hormen edo orubeen jabeak bila joaten zaizkie euren jabeagoak edertu ditzatela eskatzen. Horregatik kobratu egiten dute, izan ere, "margolari batek horma zuriz margotzearen diru dezente kobratzen du, eta guk, lan

## Erakundeak, ezinbesteko

**T**opagunea Euskara Elkarten Federazioak erakundeek *asteburuetan.com* proiektuari emandako harrera ona azpimarratu zuen martitzeneko aurkezpen ekitaldian. Hain zuzen, Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien eta Mendaroko Udalaren babesa jaso dute. Erakundeen laguntza bilatu du Topagunea, izan ere, gazteendako egitasmo horri ahalik eta indar handiena eman nahi izan diote. Gazte Sortzaile Sariak lehenengo edizioa izango du aurten, eta grafitiak aukeratu dituzte gai moduan; baina urtero gai desberdin bat aukeratu dute gazteek sormena landu dezaten.



TOPAGUNEA

Erakundeetako eta Topaguneko ordezkariak, martitzeneko aurkezpenean.

handiagoa egiteaz gain, sormena erabiltzen dugu".

Elgetan ere antzeko zerbait gertatzen ari da. Imanol Garai-zabal grafitigile elorriarrak izan du azken aldiaren herri horretan nahikotxo lan: besteak beste, haurtzaindegia dekoratu du, enkarguz, grafitiekin; eta bihar, zapatua, Espaloia kafe antzokiko paretara bat grafitiz estaliko du, antzokikoek hala eskatuta.

Arrasateko jaietan, edo gaztetxearen ekimenez, antolatu izan dira jaialdiak, eta horietako protagonistetako bat grafitiak izan dira. Argi dago gero eta onartuago dagoela arte mota hori. Gauza bera gertatzen ari da grafitiekin lotuta joaten diren musika estiloekin -hip-hop, rap, ska eta DJen musika, besteak beste- eta jardunekin -skatea, break dancea...

## LANEAN IKUSTEKO AUKERA

Debagoieneko grafitigile betereen esanetan, horretan ona izateko ezinbestekoa da norberak bere estiloa aurkitzea. Arrasateko horiei begiratu, ikus daiteke ibarreko grafitigileak hobetuz joan direla, eta merezi duela lan batzuei begiratzeko.

Ez da erraza izaten grafitigileak lanean ikustea, baina, euren zaletasuna miresteko zerbait bilakatzen joan denez, bihar, Mendaron, euren sormen lanak egiten doazen neurrian lanean ikusteko aukera izango dugu.

## Garai txarrak joanak dira

**G**rafitiak arte edo apaingarri bezala ikusten dira orain; erakusketak, lehiaketak, ikastaroak... antolatzen dira, eta argi dago jendeak gustuko dituela. Hala ere, guztiok ez daude pozik grafitigintzaren onespenez honekin. Batzuek grafitien jatorriko izaera errebindikatio eta iraultzailearen falta sumatzen dute, eta grafitiok kritika eta protesta zeinu ziren garaia nostalgiaz gogoratzen dituzte. Jatorrian, 60ko hamarkadako eragile politikoek eta AEBetako kaleko bandek erabiltzen zituzten grafitiak nortasun zeinu moduan, edo gizartearekin komunikatzeko, eta New Yorkeko metroko bagoiak erabiltzen zituzten horretarako. Mondragoeko grafitigile batek ere onartu du, aukeran, berari ere New Yorkeko metroa margotzea gustatuko litzaiokeela.

Gaur egungo egoera ikusita, zaila da sinistea orain ez dela asko arte grafitien gaineko iritzi txarra zela nagusi, eta ez hori bakarrik: garai baten, debekatuta zeuden, eta krisialdi sakona egon zen hainbat neurriren ondorioz. Hain zuzen, AEBetan, New Yorken, 80ko hamarkada erdialdean, droga salmentarekin edo kaleko banda arrisksuekin lotzen zen grafitigintza, eta gazteei margoak saltzeko debekuak eta guzti egin zituzten.

Berpizkundea hamarkada bukaera aldera etorri zen. Orduan, hip-hoparen kulturak goraldia izan zuen eta, horrekin lotuta, grafitiak egiteak lehengo irudi txarra galdu zuen.

Europar mugimendua urte horietan sendotu zen. Hasieran, AEBetan bezala, tren eta metro bagoiak erabiltzen zituzten artistek; gero jo zuten hormetara. Ibarrean, trenik edo metrorik ez, eta paretan moldatu behar dira grafitigileak.

# Urriak 1-8

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguzteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com) • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

## MATRIKULAK

### ANTZUOLA

► **Haur-eskolan** izena emateko epea zabalik egongo da urriaren 8ra arte. 2 urtera arteko umeendako da. Izena emateko, jo udaletxera, goizez, eta galdetu Jonerengatik.

### OÑATI

► **Haur-eskolan** matrikulatzeko aukera dute 2 urte arteko umeek. Horretarako, jo Udal Hezkuntza Sailera. Urriaren 8ra arte duzue horretarako parada.

## DEIAK

### ANTZUOLA

► **Aiherra-Antzuola Korrika** antolatzeke batzarra deitu dute gaurko, egubakoitza, udaletxean, 18:30ean.  
► **Elkarrik** bihar, zapatua, Donostian deitu duen agerraldira joateko autobusa antolatu du herriko taldeak, Beheko auzoan, 16:00etan.

### ARETXABALETA

► **Herriak behar dituen kirol instalazioen** gainean eztabaida egiteko batzarra deitu du Udalak hilaren 6rako, udaletxean 18:30ean. Nahi duen guztiek parte har dezakete.

### ARRASATE

► **Arrasate Errugbi Taldeak** jokalaria behar ditu. Parte hartu gura dutenek entrenamendu saioetara joan besterik ez dute. Musakolako kiroldegian jarduten dute martitzen eta eguenero, 19:00etan.

### BERGARA

► **Jolasleku ibiltaria** Simon Arrieta plazan izango da gaur, egubakoitza, 17:00etatik 19:00etara bitartean. 6-12 urte arteko umei dago zuzenduta. Jardun elkarteak antolatzen du.  
► **Umeendako jolasparkea** antolatu du Beart merkatarien elkarteak biharko, zapatua. Munibe plazan izango da, 12:00-14:00 eta 16:00-19:00.

► **Bergararrak lihoz janzten ziren garaiko historia** izango du berbaig Jose Antonio Azpiazu historialariak urriaren 5ean, martitzena, egingo duen hitzaldi batean. Miguel Altuna ikastetxean izango da, 19:30ean.  
► **Cannabis tailerra** antolatu dute Gazte Asanbladak eta Errotatxo Kolektiboak. Izenematea, gaztetxean.

### ESKORIATZA

► **Tortolis ludotekarako laguntzaile** behar du Axtroki elkarteak, urrian hasi eta epe luzerako, arratsaldeetarako. Curriculumak honako helbidera bidali: [axtroki@topagunea.com](mailto:axtroki@topagunea.com). Argibideetarako, deitu 943 71 54 34 zenbakira.

### LEINTZ GATZAGA

► **Leintz Gatzaga-Leintz Gatzaga II.** Mendiko Bizikleta zeharkaldia egingo dute etzi, domeka, 09:30ean.

### OÑATI

► **Oñati, iragana, oraina eta geroa** DVDaren emanaldia izango da eguztenean, hilak 6, kultura etxean, 19:30ean. DVDa salgai dago turismo bulegoan, 10 eurotan.  
► **Igerilekua** urriaren 5ean, martitzena, zabalduko dute, egin beharreko egokitzapen lanak bukatu ondoren.

## LEHIAKETAK

### DEBAGOIENA

► **Danbaca Debagoieneko I. Musika Lehiaketa** deitu du Goienak, eta parte hartzeko mugaeguna urriaren 7a da. Talde bakoitzak hiru abesti eta bestelako materiala bidali behar du Arrasateko 132 posta-kutxara. Argibideak, [www.goiena.net/danbaca](http://www.goiena.net/danbaca) webgunean, edo 943 71 25 11 telefonora deituta.  
► **Blas Arratibel eskulangintza sariketa** deitu du Arabako Foru Aldundiak. Artisautza tradizional eta artisautza mota berrien arloetan 1.500 euroko sari bana emango dute, eta baita sari berezi bat ere. Argibideak, Arabako Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Sailean.

### OÑATI

► **Ageriko II. Margo Sariketa** deitu du Oñart Oñatiko Arte Taldeak urriaren 10erako, domeka. 500 euroko lehen sari bat banatuko dute, beste batzuen artean. Euskarriak zigilatzeke, Oñarten egoitzara (kultura etxera) jo behar duzue egunean bertan, 09:00-11:00.

## IKASTAROAK

### ANTZUOLA

► **Antzerki ikastaroa** antolatu du Idolazek, eta izena emateko egunak dira urriaren 5etik 7ra bitartean, liburutegian. Eskolak urriaren 19an hasiko dira, 18:00-20:30, eta lau egun izango dira. Argibideetarako, deitu 943 76 60 65 telefonora.

### ARETXABALETA

► **Taila ikastaroa** antolatu du Okila elkarteak. Hastapen maila landuko dute. Urriaren 4an hasiko da, eta ordutegia izango da 18:00-20:00. Izena emateko, jo udaletxera, kultura etxera edo Okilaren egoitzara (Murubide,5).

► **Yoga, meditazio eta bioenergetika ikastaroak** antolatu ditu Sadhana yoga eta psikoterapia zentroak. Abendura bitartean izango dira eskolak. Izenemate epea zabalik dago urriaren 18a arte. Argibideetarako, deitu 616 96 57 95 telefono zenbakira.

### ARRASATE

► **Yoga ikastaroak** antolatu ditu Sanatana Dharma Yoga Eskolak. Astelehen eta eguztentean Musakolako kiroldegian izango dira, 09:30-11:00 (Maite, 635 71 06 16); martitzen eta egueneroan, San Viator Txikin, 18:45-20:15 (Ana, 943 78 31 26). Urriaren 4an hasiko dira eskolak.  
► **Bizikletak zelan konpondu eta zaindu** ikasteko jardunaldiak antolatu ditu Emakume Txokoak. Lehenengoa urriaren 6an, eguztentean, izango da. Izenemate epea astelehenean, hilak 4, bukatuko da. 3 euro da.  
► **Eskulan ikastaroa** antolatu du Ekin Emakumeak elkarteak urriaren 5etik abenduaren 14ra bitartean, Musakolan. Izena emateko epea urriaren 4an bukatuko da.  
► **Taila ikastaroa** deitu du Arte Arrasateko Tailaginen Elkarteak urriaren

18tik abenduaren 2ra bitartean. Sakontze maila landuko da. Izena emateko, deitu 943 79 86 95 telefono zenbakira, iluntzean (Kaxintto).

### BERGARA

► **Patinaje ikastaroa** antolatu du Udal Kirol Sailak urriaren 16tik abenduaren 4ra bitartean. Izenemate epea urriaren 14an bukatuko da. Hastapen eta hobekuntza mailak landuko dituzte. Izena emateko, deitu 943 77 91 67 telefonora edo idatzi [kirolak@bergara.net](mailto:kirolak@bergara.net) helbidera.  
► **Marraketa eta margo ikastaroa** antolatu dute. Gazteen eta helduen talde bana osatuko dute, eta eskolak arratsaldean izango dira. Izena emateko, deitu 943 76 17 32 telefonora (M<sup>a</sup> Paz).

### ESKORIATZA

► **Internet ikastaroak** hasiko dira KZGunean urriaren 4an, horietako bat nagusiendako.  
► **Oinarrizko sukaldaritza ikastaroa** deitu du Amuska taldeak urritik urtarrilera bitartean, 18:00-20:00. Bazkideek 20 euro ordaindu beharko dute; gainerakoek, 26. Argibideetarako, jo kultura etxera.



► ANTZERKIA

## EMAKUMEAK PROTAGONISTA DITUZTEN BI ANTZEZLAN BERGARAN

Bi antzerki emanaldi egongo dira egunotan Bergaran. Lehenengoa gaur, egubakoitza, izango da, Novedades aretoan, 22:30ean. Hain zuzen, Itziar Ituño aktoreak *Pakitarentzat bakarrik* lana antzeztuko du. Ordubeteko antzezlan horretan, Pakitak bere bizimodu bakartiaren eta dituen mendekotasun guztien berri ematen die ikusleei. Maiteminduta dagoela ere onartzen du, baina maitemin horrek ez dio gauza onik ekarriko. Bigarren antzerki emanaldia bihar, zapatua, izango da: Ispilu talde amateur donostiarrak, Yolanda Guillen bergararraren zuzendaritzapean (guztiak irudian azaltzen dira), *Damas, señoras, mujeres* komedia antzeztuko du. Marbellako diskoteka baten giroa dago. Zabalotegi aretoan izango da, 19:30ean.

**Non:** Novedades eta Zabalotegi aretoetan. **Noiz:** Urriak 1ean eta 2an, antzezlan bana.

## TXINATAR MEDIKUNTZA ETA AKUPUNTURA JAPONIAR IKASTAROA



**Eugenio Ramos Merinoren eskutik** txinatar medikuntza, osteopatia, masajista eta kinesiologian diplomaduna.

**Hasiera:** urriaren 30a

**Iraupena:** 130 ordu.

**Informazio zabalagoa:** Bizkaia etorbidea 12, 2. D  
Tel.: 943 77 06 22 / 645 70 17 27







**AIPAGARRI**

**Laura Irizar**

ARRASATE


**E**uskal Telebistako Basetxea K saioko lehiakidea da 19 urteko arrasatearra. Asteleheneretan ematen dute Basetxea K ETB1en. Karrantzan grabatu dute saioa, eta esperientzia gogorra izan dela dio Laurak, eta pozik bueltatu dela etxera. Hura izango da irabazlea?



**Julen Cobos**

ARETXABALETA

**B**at Gehio taldeko abeslaria da Julen Cobos. Domekan Zarautzen eta Orion egingo den Kilometroak festan joko du taldeak. Gipuzkoako ikastolen aldeko jaian joko dute jendaurrean lehenengo aldiz. Bat Gehio taldea Bartzelonan finkatuta dago, eta oraintxe grabatu dute lehen diskoa: *Diaspor han*.



**Unai Arantzabal**

BERGARA

**B**ergarako Lokatza taldeko txirrindularia domekan, Aretxabaletan, hamar kilometroko erlojupeko proban nagusitu zen. Gazte mailan bost garaipen lortu ditu amaitu berri den denboraldian. Hurrengo denboraldian amateur mailan lehiatuko da, Lizarralde-Aldekoa taldean.



**Joaquin Bedia eta Tere Landa** arrasatearrak 1954ko irailaren 28an ezkondu ziren Arrasaten. Bihar, zapatua, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen elizan ospatuko dituzte urrezko ezteiak. Ondoren, bazkaria egingo dute etxekekin batera. Zorionak, familiaren partetik!



**Inmaculada Garcia** arrasatearra eta Lumbralesko **Jose Ignacio Pascua** abuztuaren 7an ezkondu ziren Lumbralesen, Salamancan. Zorionak, bioi, euskaltegiko laguneren partetik!



**Beatriz Lete eta Jose Mari Unanue** 1979ko urriaren 6an ezkondu ziren. Eguaztenean, zilarrezko ezteiak ospatuko dituzte. Zorionak, bikote, laguneren eta familiakoeren partetik!



**Cristina Valdivielso eta Julian Martinez** arrasatearrak Poza de la Sal herrian (Burgos) ezkondu ziren duela 50 urte. Urrezko ezteiak ospatzeko, bazkari eder bat egingo dute etzi, domeka, senideekin batera. Zorionak, familia osoaren partetik!



**Nati Arrieta eta Jose Arantzabal** ezkondu zirela 40 urte dira. Ospatu ere egin beharko dugu, ezta? Noski, ez duzue ospa egingo bazkari eder bat ordaindu barik, e? Eta preparatu 50 urte betetzen dituzuenarako! Nekane, Josu eta Ibanen partetik, zorionak!



**Mari eta Txiki** bergararrak bihar, zapatua, ezkonduko dira. Ezkontza Bergarako Mariaren Lagundian egingo dute eta bazkaria, berriz, Oñatin egingo dute, Zelai-Zabal jatetxean. Oilagorako laguneren partetik, zorionak eta ondo pasa!

**HILDAKOAK**

- Eusebio Bengoa Etxebarria.** Aramaion, irailaren 23an. 72 urte.
- Alberto Etxebarria Uribesalgo.** Aretxabaletan, 24an. 41 urte.
- Jose Mari Garai Arregi.** Arrasaten, irailaren 25an. 84 urte.
- Juanita Perea Garcia.** Bergaran, irailaren 26an. 73 urte.
- Fuensanta Fernandez Angulo.** Bergaran, irailaren 28an. 73 urte.
- Karmelo Garaitonandia Kortabarria.** Aramaion, 29an. 73 urte.
- Julia Redondo Cedillo.** Arrasaten, irailaren 29an. 90 urte.

**ESKER ONA**

**Eusebio Bengoa Etxebarria**

Arrasaten hil zen 2004ko irailaren 22an, 72 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Aramaion, 2004ko urriaren 1ean.

**ESKELA**

**Alberto Etxebarria Uribesalgo**

Lyonen hil zen 2004ko irailaren 24an, 41 urte zituela.

*Murumendi elkarteko bazkideek ez zaitugu ahaztuko*



Murumendi Elkartea (Untzila)

**ESKER ONA**

**Tomas Unamuno Leibar**

Bene Gallastegiren alarguna

Bergaran hil zen 2004ko irailaren 22an, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2004ko urriaren 1ean.

**ESKER ONA**

**Jose Ramon Alvarez Garai**

Aramaion hil zen 2004ko irailaren 26an.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2004ko urriaren 1ean.

**URTEURRENA**

**Lidia Bartol Frutos**

Lehen urteurreneko meza martitzenean, urriaren 5ean, 19:00etan, Eskoriatzako San Pedro elizan.





Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Lelokeria, astakeria		*Izena		A hirutan
	*Deitura		Metalezko kapela		
	Gaude				
	Aditzak sortzeko atzizkia				
Eragozpide		Ikerketalana			
Eztul eginez		Oihal fin eta garden			
					Truke
Listu		Ortografi zeinua			
Kaskarrekoa		Italiako ibaia			
				Litroa	
				Mihia pasatu	
Fosforoa		Zakur		1500	
Onomatopeia		Aldaki		Bihi, garau	
		Kasik			
		Gar			
A, e, i, o, u					
Erretzeko tresna					
			Ezen		
			5. eta 2. bokalak		
Sos				T birritan	
Minerala				1000	
		Hegazti mota			

BILABILA7



UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

BIARRERA JUAN NAI EZ

Plaentzia inguruan bizi zan Urlixa. Itxura danez, biarrerako gogo gitxikua. Edozer aitzei artu eta etxian geratzen zan edo lagun artian jokuan. Beñ etxe-kuak esan zetsen:

- I, txotxo, biarrera noiz jua bihar dok?  
Eta Urlixak:  
- Baiñan zuek eztakizue ni denpora gitxixan bizitzeko jaixo naizela eta betirako iltzeko, eta biarrera bialtzea nai dozue?  
Beste beñ, horrela "oportretan" zegoala, bere tallarreko kontramaixuakin ikusi da, eta onek:  
- I, baiña, noiz ator biarrera?

Eta Urlixak:

- Ara, zuek eñ bihar dozue-na dok tallar barruan doazena jubilau, eta kanpuan gagozenei bakian itxi. Andik apur batera, ikusi da kalia ugazabarekin.  
- Noiz ator biarrera?  
Urlixak:  
- Etxuek esaten ba gure tallarrak hainbeste millioi balio ditxuala? Eñ zeinkien gauzarik onena auxe dok: orrek tallarreko danen artian partidu, eta danok ondo biziko gaitxuk.  
Azken batean, gure Urlixari "gaixo luzearen" oportretak emon zetsesen. Etze-goan beste erremedixorik.

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




Debagoieneko zein enpresak babesten du kirolgi?

Gipuzkoako kirola bultzatzeko finantzaketa pribatua lortzea da Kirolgi fundazioaren helburu nagusia. Probitziako hainbat kirol-elkarte eta banakako kirolariak laguntzen ditu diruz Kirolgik. Finantzaketa pribatu horretan parte hartzen duten enpresen artean Debagoienean egoitza edo lantegi nagusi bat duten bi enpresa dau-de. Asmatuko zenuke zeintzuk diren?

- Fagor eta Candy
- Ulma eta Aceralia.
- Ederlan eta Fagor
- Ulma eta Goizper

Erantzun zuzena: Ulma eta Aceralia.

SOLUZIOAK



M	E	A	•	E	M	U	A
D	I	R	•	U	T		
P	I	P	•	A	Z	E	
B	O	K	•	A	L	A	K
T	O	K	•	I	A		
P	O	R	•	M	D		
K	O	L	•	P	E	A	L
T	U	K	•	O	M	A	
E	Z	T	•	A	K	A	
T	E	S	•	I	A		
G	A	R	•	A			
U	R	K	•	I	A		
M	•	E	•				

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Asebetetasunik eza ingurukoekin daukazun hartu-emanean, ez dituzte-eta zure kezkek ulertzen. Horren ondorioz, hitzaldi eta konferentziatara joango zara, ulertuko zaituen norbaiten bila.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Zure helburuak bete nahi badituzu, gogor lan egin beharko duzu, eta jendea konbentzitzeko daukazun gaitasuna erabili beharko duzu.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Lanean egin duzun esfortzuak fruituak emango ditu. Bestalde, seme-alabekin arazoak izango dituzu, eta ohi baino luzeago egon beharko duzu haiekin.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Gaizki-ulertzeak lanean edo eskolan; ondorioz, arazoak izango dituzu lankideekin edo eskolakideekin. Bestalde, atzerria bidaiaren bat egiteko aukera, lanarengatik edo ikasketengatik. Argi ibili zer jaten duzun, urdaila delikatuia izango duzu-eta.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Bakarrik egon gura izango duzu, zure bizitzako hainbat alderdi aldatzeko asmoz. Bestalde, argi ibili egingo dizkizuten lan proposamenekin, engainatu egin zaitzakete-eta.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Bidaia bat egingo duzu, eta etorkizunean zure bizitzan oso garrantzitsu izango den jendea ezagutuko duzu. Bikotekiderik ez baduzu, lasai, laster neska/mutil atsegin bat ezagutuko duzu-eta.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Oso sentibera egongo zara, eta edozergatik haserretuko zara; izan ere, arazo txikiena ere handi bihurtuko duzu. Eztabaida inozoak izango dituzu lagunekin eta familiakoekin. Neurtu zer esaten duzun.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Inguruko emakumei esker, horrenbeste espero zenuen proiektua aurrera atera ahal izango duzu. Bestalde, oso aste positiboa amodio kontuei dagokienez.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Oraingo astean aspertu egingo zara eta oso bakari sentituko zara. Horrez gain, lanean guztiz blokeatuta egongo zara. Ez estutu, eta ahalegin zaitze beste alternatiba batzuk topatzen.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Oso hotz jokatu duzu ingurukoekin, eta bikotekidea haserretu egingo da zure jokaera hori dela eta. Bestalde, oso aste aproposa da kontratuak sinatzeko eta negoziazioak egiteko.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20



Zure inguruan gertatuko den zerbaitek nahiko argi zenituen gauza batzuk berriro planteatzea eragingo du. Bestalde, dirua xahutu eta xahutu ibiliko zara, eta arazoak izango dituzu hil bukaerara ailegatzeko.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20



Araozko bikotekidearekin; izan ere, ezin duzu jasan zurekin duen jarrera hotza. Bikotekiderik ez baduzu, neska/mutil bat ezagutuko duzu eta harreman polita hasi.

**GIPUZKOAKO  
ASTROLOGI ELKARTEA**

Urriaren 4a: 015 zozketa

## Harpidedunen txokoa

# Sariak, astero!

Astelehenean, urriak 4, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.  
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!**

### Urriaren 4ko sariak

- WHIRPOOL mikrouhin labea.
- Ipuruako futbol zelaian EIBAR-REAL VALLADOLID partidua ikusteko sarrerak.
- 'AITONA-AMONEN OROIGARRIA', Mikel Valverde eta Bernardo Atxagaren liburua.
- 'MAITEMINDUAK' umeendako liburua Erein argitaletxearen eskutik.
- 'ASTO BAT HYPODROMOAN' umeendako liburua.
- 'UMEENDAKO IPUIN KLASIKOAK' liburua Erein argitaletxearen eskutik.
- 'SOLAS' filma DVDan.



#### FITERORA!

Fiteroko bainu-etxean bi lagunendako aste bukaera zozketatuko dugu urrian. Zorte on!

**Viajes Eroski**  
Bidalak  
Grupo Eroski  
Laguntzailea

### BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera,  
09:00etatik 21:00etara.

Urte amaierara arteko harpidetza: **10 €**

ASTELEHENEKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

014  
zozketa  
saridunak

Hauek izan dira  
aurreko zozketako irabazleak.  
Zure izena zerrendan badago,  
**ZORIONAK!**



Ignacio Toledo eta Miren Aranguren  
Antzuola

SARIA:  
REFLECTA diapositiba proiektagailua

ELHUYAR hiztegia.  
Euskara-gaztelania  
hiztegia.  
• Soiartze Heras  
(Bergara)

Erein argitaletxearen  
eskutik  
'MAITEMINDUAK'  
umeendako liburua.  
• Josu Unamuno  
(Antzuola)

'AITONA-AMONEN  
OROIGARRIA', Mikel  
Valverde eta Bernardo  
Atxagaren liburua.  
• Muxika Olasagasti  
(Arrasate)

'MANOLITO GAFOTAS'  
filma DVDan.  
• Amaia Irazabal  
(Oñati)



**Harmailatik**  
ASTELEHENA, 4/ 21:00 eta 22:30



**Jaiak 2004**  
MARTITZENA, 5 / 21:00 eta 22:30



**Telesaila**  
EGUAZTENA, 6/ 21:30 eta 23:00



**Oinak izarretan**  
EGUENA, 7/ 21:30 eta 23:00

**Kirol emaitza guztiak eta UDA taldearen aurkezpena**

Julen Iriondo kazetariak astelehenean emango dio hasiera *Harmailatik* saio-ko ikasturte berriari. Programaren lehenengo zatian, kirol emaitzen gaineko informazio emango digu. Bigarrenean, UDaren preferente mailako taldea aurkeztuko du.

**Maritxu Kajoi eta San Migel jaien gaineko saio berezia**

Debagoieneko festek ez dute amaierarik. Eta noski, GOITB guztietan izan da. Martitzenean, Arrasateko Maritxu Kajoi eguneko eta Oñati eta Aretxabaletako San Migel jaien gaineko saio berezia eskainiko digute.

**Joselontxoren itzulera 'Bi eta bat' telesail umoretsuan**

Umorezko telesail bikaina jarraitzeko aukera izango duzue GOITBn: *Bi eta bat*. Lehenengo kapitulua izango duzue eguaztenekoa, *Pisukide berria* izenekoa. Gertu zaudete Joselontxoren istorioekin barrez lehertzeko?

**Manaslu: itzulera baten historia**

Iturrategi anaiek egindako erreportaje sailak eskainiko ditu GOITBk. Hasteke, Manaslu mendira egindako igoraren gainekoa ikusiko dugu. Eguenero *Oinak izarretan* erreportaje sortaren txanda izango duzue Goiena Telebistan.

**TELEBERRIAK**

**Homosexualitatearen gaineko telebista abiaraziko dute**

Urriaren 25ean, homosexualitatearen gaineko lehen telebista abiaraziko dute Frantzia. Pink TV izena du eta homosexualitatearen gainekoa izan arren, ez da izango komunitate horrendako bakarrik. Hilean bederatzi euro ordaindu behar-ko dira bazkide izateko. 180.000 ikusle abonatu-ko direla espero dute.

**RTV Erendako dira 2010eko eta 2012ko Olinpiar Jokoen gaineko eskubideak**

2010ean Vancouverren Neguko Olinpiar Jokoa izango dira eta 2012an udakoak jokatu dituzte. Hain zuzen, jakinarazi dute joko horien gaineko eskubideak RTVEk eskuratu dituela. Bestalde, RTVEren gainean ari garen, kate horrek izan duen audientziaren beherakada lehenagoko gobernuaren herentzia dela adierazi du kateko zuzendari Carmen Caffarelek. Kontua da Espainiako telebista publikoa hirugarren dela gainerako telebista nazionalen artean.

**Bihotzeko kontuak lantzen dituzten telebisten kontra**

Kataluniako Kazetarien Elkargoak salatu du bihotzeko kontuak lantzen dituzten saioek legea urratu egiten dutela, irabazi ekonomikoak eskuratzeko. Hori dela eta, epaitegiei eta Ministerio Fiskalari legea betearazteko eskatu zieten. Horren harira, Kanarietako telebistak halako saio guztiak kendu ditu programaziotik.

**ASTEKO PROGRAMAZIOA / Urriaren 1etik 7ra**

EGUBAKOITZA 1	ZAPATUA 2	DOMEKA 3	ASTELEHENA 4	MARTITZENA 5	EGUAZTENA 6	EGUENA 7
20:00 <b>Berriak</b> 20:30 <b>Iluntzean:</b> Izaro Iraeta 21:00 <b>Jaiak 2003:</b> Iazko Maritxu Kajoi festetako errepasua 21:30 <b>Berriak</b> 22:00 <b>Iragana gogoratu:</b> Armagintzaren gaineko erreportajea. 22:30 <b>Soinuz blai</b> 23:00 <b>Berriak</b>	13:30 <b>Iluntzean:</b> Julian Retegi 14:00 <b>Iragana gogoratu:</b> Medikuntza Debagoienean 14:30 <b>Gu eta gure hizkuntzak</b> 15:00 <b>Soinuz blai</b> 15:30 <b>Iluntzean</b> Benito Lertxundi 16:00 <b>Gu eta gure hizkuntzak</b> 16:30 <b>Emisio amaiera</b>	13:30 <b>Iluntzean:</b> Jose Maria Setien 14:00 <b>Iragana gogoratu:</b> Itzala utzitako lanbideak 14:30 <b>Gu eta gure hizkuntzak</b> 15:00 <b>Soinuz blai</b> 15:30 <b>Iluntzean</b> Izaro Iraeta 16:00 <b>Gu eta gure hizkuntzak</b> 16:30 <b>Emisio amaiera</b>	13:50 <b>Marrakzi bizidunak:</b> Kalimero. 14:15 <b>Berriak</b> 14:45 <b>Iluntzean</b> 15:15 <b>Soinuz blai</b> 15:45 <b>Berriak</b> 16:15 <b>Klip@</b>  19:30 <b>Emisio hasiera</b> 19:35 <b>Gaurkoak</b> 19:45 <b>Klip@</b> 20:00 <b>Berriak</b> 20:30 <b>Marrakzi bizidunak:</b> Kalimero. 21:00 <b>Harmailatik</b> 22:00 <b>Berriak</b> 22:30 <b>Harmailatik</b> 23:30 <b>Gaurkoak</b> 23:45 <b>Emisio amaiera</b>	13:50 <b>Marrakzi bizidunak:</b> Animalikeriak. 14:15 <b>Berriak</b> 14:45 <b>Harmailatik</b> 15:45 <b>Berriak</b> 16:15 <b>Klip@</b>  19:30 <b>Emisio hasiera</b> 19:35 <b>Gaurkoak</b> 19:45 <b>Klip@</b> 20:00 <b>Berriak</b> 20:30 <b>Marrakzi bizidunak:</b> Animalikeriak. 21:00 <b>Jaiak 2004</b> Arrasateko Maritxu Kajoi festak, eta Oñatiko eta Aretxabaletako San Migelak. 22:00 <b>Berriak</b> 22:30 <b>Jaiak 2004</b> 23:30 <b>Gaurkoak</b> 23:45 <b>Emisio amaiera</b>	13:50 <b>Marrakzi bizidunak:</b> Kalimero. 14:15 <b>Berriak</b> 14:45 <b>Jaiak 2004</b> 15:45 <b>Berriak</b> 16:15 <b>Klip@</b>  19:30 <b>Emisio hasiera</b> 19:35 <b>Gaurkoak</b> 19:45 <b>Klip@</b> 20:00 <b>Berriak</b> 20:30 <b>Marrakzi bizidunak:</b> Kalimero. 21:00 <b>Iragana gogoratu:</b> Armagintza 21:30 <b>Telesaila:</b> Bi eta bat 22:00 <b>Berriak</b> 22:30 <b>Iragana gogoratu:</b> 23:00 <b>Bi eta bat</b> 23:30 <b>Gaurkoak</b> 23:45 <b>Emisio amaiera</b>	13:50 <b>Marrakzi bizidunak:</b> Animalikeriak. 14:15 <b>Berriak</b> 14:45 <b>Iragana gogoratu:</b> 15:15 <b>Bi eta bat</b> 15:45 <b>Berriak</b> 16:15 <b>Klip@</b>  19:30 <b>Emisio hasiera</b> 19:35 <b>Gaurkoak</b> 19:45 <b>Klip@</b> 20:00 <b>Berriak</b> 20:30 <b>Marrakzi bizidunak:</b> Animalikeriak. 21:00 <b>Behazulo</b> 21:30 <b>Oinak izarretan</b> Itzulera baten historia 22:00 <b>Berriak</b> 22:30 <b>Behazulo</b> 23:00 <b>Oinak izarretan</b> 23:30 <b>Gaurkoak</b> 23:45 <b>Emisio amaiera</b>
21:00 Maritxu Kajoi 2003			21:05 Harmailatik	21:00 Jaiak 2004	21:30 Bi eta bat	21:30 Oinak izarretan

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefona: 943 71 23 95

**Berritasun ugarirekin estreinatuko du Goiena Telebistak ikasturte berria oraingo astelehenean**

*Edukien aldetik programa berriak ikusteko aukera egongo da, tartean, marrakzi bizidunak*

**GOITB**

**Ikasturte berria, itxura berria. Horrelaxe datorkigu GOITB. Hainbat dekoratu aldatu dituzte batetik, eta saio berriak ikusiko ditugu bestetik. Betiko moduan, albistegiak izango dira parrillako ardatz. Horiek ere itxura berria izango dute.**

GOITBko langileak gertu daude ikasturte berriari hasiera emateko. Urriaren 4an, astelehena, gertatuko da hori. Itxura berriarekin eta Debagoieneko ikusle guztien gogoak asetzeko

asmoarekin, indarberriturik etorriko zaizkigu. Aldaketa batzuk ikuslearendako nabarmenak izango dira, duda barik.

**ALBISTEGIAK**

Argiak, zehatzak eta zuzen-zuzenekoak. Horrelako dira GOITBko albistegiak, *Berriak*. Joan den urteko maiztasun bera izango dute. Eguerdian izango dituzue lehenengo albistek eta iluntzean azkenak. Edonola ere, ordutegi aldaketa izango da. Eguerdietan, 14:15ean hasiko da *Berriak* saioa eta ez, orain arte bezala, 14:30ean. Aurkezle-

en aldetik ere aldaketak daude. Gorka Etxaberen lekua Oihan Vegak eta Julen Iriondok beteko dute eguerdian. Iluntzean, berriz, Deiane Arrietak jarraituko du. *Gaurkoak* tartean ere ez da aldaketarik egongo. Aurkezlerik gabeko albistegi saioa izaten jarraituko du. Edonola ere, adi ordutegi berriari: 19:35ean lehenengo saioa eta 23:30ean errepikapena.

**MARRAZKI BIZIDUNAK**

Oraingo ikasturtean GOITBkoek ahalegin berezia egin dute umeei eta gazteei zuzendutako

programazioan. Berritasunetako bat marrakzi bizidunak dira. Egunero, 13:50ean eta 20:30ean eskainiko dituzte. Astelehenean, eguaztenetan eta egubakoitzetan *Kalimero* izeneko marrakzi bizidunak eskainiko dituzte, eta martitzenetan eta egueneretan *Animalikeriak*. Haurrendako eskaintzak asteburuan ere izango du jarraipenik; haurrendako film bat eskainiko du Goiena Telebistak astebururo.

Hala ere, ez dira hauek izango nobedade bakarrik. Piztu Goiena Telebista. Ikustekoa!





## Aurten ere gogotik inplikatuko gara.

Etorkizun zuzenago bat eraikitzeko konpromisorik onena erantzukizun partekatuarena da. Horregatik, haiengandik hurbil egonda hezitzen ditugu haurrak zein gazteak. Denok garelako geroaren erantzule, gure seme-alaben garapen pertsonalean gogotik inplikatuko gara ikasturte honetan ere.

[www.arizmendi.ikastola.net](http://www.arizmendi.ikastola.net)

  
**Arizmendi** ikastola  
*geurea, zeurea*

## Atzeskua

OIHANA ELORZA

### Rosarito Zeziaga/ Dendaria

**G**elditzen zaizue oraindik niretako moduko Maritxu Kajoiko soineko-rik? Bai, bai, oraindik gelditzen zaizkigu, modelo bat baino gehiago, gainera.

**Azken orduan ibiltzen da jendea, ala?**

Irailaren hasieran, eskolako amantalekin batera jartzen ditugu Maritxuko arropak erakusleihoan.

Emakumezkoak lehenago etortzen dira erostera, eta gizonezkoak azken orduan. Egubakoitz arratsaldean ere gizonezko asko etortzen dira, atera hortik kontuak!

**Aukeratzeko gutxiago izango dutelako.**

Gizonezkoen arropa ez da horrenbeste aldatu, ez. Normalean, beltzak izaten dira traje guztiak. Traje osoa eramaten dute, eta antzerako itxura izaten dute guztiek. Gorbata oparitu egiten diegu.

Hala ere, batzuek handiegi eta beste batzuek txikiiegi izaten dituzte, eta konponketak egiteko denboraz larri ibiltzen gara.

**Zuok egiten dituzue konponketak?**

Bai; praka barrenak hartu, soinekoak estutu edo eskoteak txikitu, tiranteak moztu eta antzerakoak. Baina

horiek egiteko ere denbora behar dugu, ezin ditugu denak egun batetik bestera egin eta beti izaten da hobea denboraz ibiltzea.

**Eta soineko eta trajeak ere zeuonak dira?**

Ez, horiek eginda ekartzen ditugu. Kanpora, azoketara joaten gara arroparen estiloak, diseinuak eta kolo-reak ikustera, eta hantxe aukeratzeko ditugu.

Soinekoek gain, gainera, osagarriak ere erosten ditugu: poltsa txikiak, xalak, paparrereko orratzak...

Bestalde, egun oso jostun gutxi daude. Zaila da ondo josten dakien profesional bat topatzea, eta denbora laburrean traje

edo soineko asko egitea ezinezkoa da. Gainera, askoz garestiagoa da egitea, egindakoa erostea baino.

**Zenbat balio du, ba, soineko batek?**

Soinekoak, adibidez, 35 eta 70 euro bitartean balio

du. Gizonezkoendako traje osoak, 130 euro inguru. Arropa ona da, dena dela, gero ere janzteko modukoa.

**Oso desberdinak dira lehengo eta oraingo Maritxu Kajoiko arropak?**

Guztiz. Lehen, amamaren arroparekin egiten zituzten. Oraingo amamak, ordea, modernoagoak dira eta ez dute arropa zaharrik. Lehen, gainera, beltza zen kolore ia bakarra. Orain, ordea, morea, granatea, fuk-sia eta modan dauden antzerako koloreak ere asko jantzen dituzte. Gaueko jaia da, eta gaueko koloreak izan behar dute, baina aukera zabalagoa da orain.

**Zeu jantziko zara?**

Bai, horixe, urtero jantzen gara Mari Mar ahizpa eta biok. Guk, ordea, ez dugu parranda handirik egiten. Zapatu goizean denda zabaldu behar dugu eta erakusleihoan aldatu behar izaten dugu, horixe izaten dugu lehenengo lana.



**“Gizonezko asko egubakoitz arratsaldean etortzen dira Maritxuko trajea erostera”**

**“Soinekoak 35 eta 70 euro bitartean balio du eta gizonezkoendako traje osoak 130 inguru; gorbata oparitu egiten diegu”**

**“Beltzaz gain, granatea, morea edo fuk-sia kolorekoak dira soinekoak, gauekoak”**

► Arrasate /63 urte / Ceciaga mertzeriakoa

## PIPERRAUTSA

### Madrazo

**N**abarmentzen ari da Jaurlaritzako sailburuen artean. Eta nabarmentzea txarra da barne sailburuarentzat, baina oso ona saileko ardurak direnean etxebizitza eta gai sozialak. Honela, sona hartu du Madrazok. Zenbaitek gogoratzen ditu aurrekoak? Ba hori.

Lehen kolpean, zintzotasuna dario. Inozo samar ikusi nahi duenak azter dezala honaino egin duen ibilbidea, nola nagusitu zen Ezker Batuan PC aurka izan arren, nola lortu zuen IUk errespetatzea EB Lizarran egotea, nola EB bereiztu duen IUtik... Edo nolako eztenkadak botatzen dizkion Errege familiari, epaitegien beldur barik. Ez da inozoa, baina amamaren batek ia Ibarretxeren pare jartzen du santutasunean.

Hala ere, etxebizitzeko kontuak famatu du Madrazo gehien. Babes ofizialekoak ugaltzen ari dira, eta Uarkapeko zozketa publikoan izan zirenak konforme irten ziren, ez tokatu arren. Etxebizitzak errentan emateko programa ere ari da bide egiten, dagoneko 500etik gora daude emanda, hilean 180 euroko errentan.

Eta orain lurzorua legea dator. Oraindik proiektu da, eta ikusi egin behar nola gelditzen den azkenean. Baina eskua sartzen du indartsu guztiz desmadratuta dagoen esparruan, eta hori ona da. Etxebizitzarako eskubidea jartzen du jabetza eskubidearen gainetik, eta doktrina horrek onura asko ekar ditzake gizarte gehiengoarentzat.

Sinpatia diot Madrazori, zertan uka.

MIKEL IRIZAR

Orain BERGARAN

**INAUGURAZIO ESKAINTZA BEREZIA!**  
Lehenengo hilabetean, graduatutako armazoiak, deskontua: %50

INSTITUTO  
OPTICO

Bidekurutzeta 10. BERGARA  
Tel.: 943 76 97 03

